

HAUR ABERRIGABEAK: Jaiotza agiririk
eta naziotasunik gabe, gobernuen
begietara ez dira existitzen > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

A20: nafarren bigarren itzulia
eta EAĖkoen lehena **RAMON SOLA > 11**

2015eko abenduaren 19a | IX. urtea • 447. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



> 12-19 JON URBE | ARGAZKI PRESS

**ZORTZIKOTEA BIRIBILARI
ERTZAK JOSI NAHIAN**

Jaiotza agiririk ez duten

aberrigabeak 04

Oinordekotza ekonomikoak

trebetasun politikoa eskatzen dio

Macriri 07

Gipuzkoako Bertsolari

Txapelketako zortzi finalistei

elkarrizketa 12

Olentzero eta Mari Domingiren

tradizioari errelatoa jarri diote 22

Infraganti: Markos Urdangarin,

barraskilo ekoizlea 28

Behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Gorka Elejabarrieta:** Madriletik mundura

10 **Oier Gorosabel:** «Text neck» delakoa

11 **Ramon Sola:** A2O: nafarren bigarren itzulia eta EAEkoen lehena

20 **Gaizka Amondarain:** Edo zein erok ez?

21 **Iker Barandiaran:** Erlijioak eta frankiziak

25 **Unai Iturriaga**

27 **Joxean Agirre:** Nostalgiak

27 **Saioa Iraola:** «Segurtasunaren» izenean

30 **Ander Izagirre:** Basajaun, oiloei jaten ematen



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK) DIRUZ LAGUNDUA



Gipuzkoa
BERRIA

{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Madriletik mundura

Erakunde arrotzetan parte hartzeak estatu egitura eta ordenua legitimatzen dituela dioenik badago. Baina teoria-soka horretatik sobera tiratuz gero, arrazoi berdintsuak aurkituko genituzke gainontzeko instituzio eremu guztietan. Udaletxeetatik hasi, parlamentu autonomikoekin jarraitu eta Europako Parlamenturaino. Borroka instituzionala ez da eta ezin daiteke izan borroka eremu bakarra, baina, zalantzarik gabe, borroka instituzionalak badu bere garrantzia. Instituzioak norberak dituen helburu politikoen mesedetan erabil daitezke, baita Espainiako Kongresua eta Senatura bera ere. Badira, abstentzioaren alde egon gabe, instituzio horietan lor daitekeenari garrantzia kendu eta hauteskunde egunean etxean geratzea nahiago dutenak. Zertarako bozkatu? Ez da ezer aldatuko, finean Madrilen betikoek agintzen jarraituko dute. Azken lau urteotan EH Bilduk Madrilen lorturiko eserlekuen ondorioz Estatuan, Herrialde Katalanetan, Galizian, Euskal Herrian bertan, Europan eta munduko txoko askotan egindakoak dira bozkatzera joateko arrazoi nagusiak. Ez da gutxi lau urteotan egindakoa, eta datozen lau urteetan ere eremu horietan guztietan ahalik eta indar handienarekin eragiten jarraitzeko guztion botoa ezinbestekoa da.

Irlandako mugimendu errepublikanoak bere helburu politikoen mesedetan erabiltzen ditu Westminsterren dituen eserlekuak. Gutako askoren memorian dago 1981eko apirilean Bobby Sands gose greban zela Westminstererako hautatua izan zenekoa. Sinn Feineko diputatuak Erresuma Batuan eragiten eta Irlandako konponbide prozesua zein uhartearen batasun prozesua bera ere bururaino eramaten saiatzen dira, baita Westminsterretik ere.

Nazio askapenerako mugimendu kurduak Turkiako hauteskundeetan ere parte hartzen du, eta instituzioak bere askapen mugimenduaren mesedetan erabiltzen ditu. Leyla Zana Turkiako parlamentuko lehen emakume diputatu kurdua bilakatu zen 1991n, eta bere lehen hitzartzean debekatua zegoen kurduera erabili zuen. 1994an kide zituen beste lau diputaturekin batera atxilotu zuten eta hamar urte eman zituen kartzelan. Leylaren diputatu akta munduan Kurdistango egoeraren be-

rri zabaltzeko erabilia izan zen. Kartzelan eman zituen urteak ez zitzaizkien Turkiako agintariei doan atera. Leyla ez zen inolaz ere preso sartzen zuten lehen emakume kurdua, baina, aldiz, diputatu izatea lortu zuen lehen emakume kurdua zen. Diputatu aktak eman zion oihartzuna bere egoerari, eta bere kontrako injustiziak kurduen borroka lau haizetara zabaltzen lagundu zuen.

Tamilland, Eskozia, Gales edo Flandriako alderdi abertzaleek ez dute Sri Lanka, Erresuma Batua edota Belgikaren menpe jarraitzeko inolako asmo eta gogorik, baina estatu horietako erakundeak ere euren lan eta borroka eremu bilakatu dituzte. Zalantzarik ez daukat ikuspegi internazionalista batetik ere garrantzitsuak direla biharko hauteskundeetako emaitzak. Euskal delegazioak Euskal Herriko egoera politikoa berri ematera Irlandara, Bruselara, Kolonbiara, Uruguaira, Suediara edo munduko beste edozein txokotara doazenean mota guztietako elkartasuna jasotzen dute. Instituzionala ere bai.

Tamilland, Eskozia, Gales edo Flandriako alderdi abertzaleek ez dute Sri Lanka, Erresuma Batua edota Belgikaren menpe jarraitzeko inolako asmorik. Baina estatu horietako erakundeak ere euren lan eta borroka eremu bilakatu dituzte

Presoen egoeraren berri eman da Europako Parlamentuan, Westminsterren edota Finlandia, Italia, Argentina eta beste toki askotako parlamentuetan ere. Nork eramango ditu guk geuk baino hobeto Euskal Herriko beharrak Espainiako Parlamentu eta Senatura? Eta nork zabalduko dizkie Espainiako Parlamentu eta Senatuko ateak guk geuk baino hobeto kide kurdu, saharar, irlandar, kolonbiar, kubatarrei?

Aurrera begira ditugun erronkak handiak dira, eta Madrilen lortuko ditugun eserlekuak gu guztion ahotsa Madrilera, etsaiaren bihotzera eramateko ez ezik, Estatura eta nazioartera eramateko oso baliogarriak izango dira, Europako Kontseilura, Nazio Batuetara eta entzun nahi gaituzten eta entzun nahi ez gaituzten txoko guztietara. •

HAUR ABERRIGABEAK

Ez dute ez jaiotza agiri ez naziotasunik; gobernuen begietara ez dira existitzen

Munduak ateak itxita ditu niretzat. Denak txapelketa batera joan

ziren eta ni neu bakar-bakarrik gelditu nintzen, entrenatzen. Entrenatzaileek lagundu egiten naute, eta pazientzia edukitzeko eskatzen didate. Denak joaten dira bidaian, eta, bueltan, nobedadez beteta itzultzen dira. Beren istorioak entzuten ditut, baina barrutik negar egiten dut. Oraindik, hala ere, badut itxaropenik gazteen entrenatzaile izateko, eredugarri izateko, baina nire ametsak bete ahal izateko hiritartasuna behar dut ezinbestek». Urrunetik eta lerroon bidez heldu arren, mingarria da honako testigantza hau entzutea. Jirair gazteak 19 urte ditu eta Georgian bizi da. Borrokalari profesionala izan nahi du eta gogor saiatzen ari da, baina badaki bere bidea ez dela taldekideena bezain erraza izango. Ametsa bete ahal izateko denbora agortzen ari zaiola ere badaki.

Jirair gazte aberrigabea da. Jendearen begietara existitzen da, baina ez aldiz bere herrialdeko Administrazioaren begietara. Ez du naziotasuna aitortzen dion inolako agiririk. Urtero munduan halako 70.000 haur baino gehiago jaiotzen dira. Iheslarientzako Nazio Batuen Agentziak (UNHCR) txosten bat kaleratu berri du, «Hemen nago. Hemengoa naiz» izenekoa. Bertan, Boli Kosta, Dominikar Errepublika, Jordania, Georgia, Italia, Malaysia eta Thailandiako 250 haur eta gazteren kasuak jaso ditu. Askok lehendabiziko aldiz hitz egin dute euren egoeraz. Ahotsik ere ez diete ematen.

Umeen eskubideak babesteko nazioarteko markoa sendoa da paper gainean, baina praktika oso bestelakoa da. Haurrei aitortzen zaizkien giza eskubideen artean naziotasuna izatekoa dago, baina badaude eskubide hori betetzen ez duten herriak. Aipatu eskubidea 196 herrialde-tik 194k babestu zuten Haurren Eskubideen Nazio Batuetako Hitzarmenean jasota dago, 7. artikuluan hain zuzen ere.

 **JENDARTEA /** Oihane Larretxea de la Granja

Naziotasunik aitortzen ez zaien 70.000 haur jaiotzen dira urtero munduan. Haur aberrigabeak dira. Ez dute ez nortasun ez jaiotza agiririk, eta, hortaz, gobernuentzat ez dira existitzen. Trabak dituzte osasun arreta jaso edo ikasteko. Iheslarientzako Nazio Batuen Agentziak «Hemen nago. Hemengoa naiz» txostena kaleratu du.

Eta arazoa handitzen ari da. Iturri berberen arabera, hamar minuturo haur bat jaiotzen da baldintza horietan. Ondorioak oso larriak direla ohartarazi dute. Hona hemen datu batzuk: hogeita hamar herrialde baino gehiagotan, umeek dokumentazioa behar dute arreta medikua jasotzeko, eta, gutxienez hogeit hamar herrialdetan, ezin dute legearen bermearekin txertorik jaso.

Dokumentazio ezak trabak jartzen dizkie ume zein gazteei osasun arloan ez ezik baita ikasketak egiteko orduan ere. Horrenbestez, etorkizunean lan duin bat aurkitzeko aukerak murrizten dizkie. Gehienek lan kaxkarrak baino ez dituzte lortzen eta askok esplotazioa eta abusuak jasaten dituzte.

Horrek guztiak psikologikoki kalteak eragiten dizkie haurrei,

Artee 18 urteko gazte thailandiarra da. Bere ametsa dantza irakaslea izatea da, baina, naziotasunik ez duenez, «ezinezkoa» izango zaiola uste du.
UNHCR

helduak izateko bidean ondorio larriak dituztenak. Aztarnak uzten ditu aberrigabe izateak. Lelik, aberrigabea jaiotzez, duela gutxi lortu zuen azkenean italiar naziotasuna, baina zaila egiten ari zaio aldaketa asimilatzea. «Aberrigabe jaio izana ez da inoiz ahazten, marka bat gelditzen da sakon-sakonean», azaldu du 19 urteko gazteak.

Txostena, hala ere, zenbakietatik harago doa: helburua haurrei egoerak nola eragiten dien jakitea izan da. Testigantzak jaso, kasuak kontatu eta izenak eta aurpegiak jarri. Aurtengo uztailetik abuztura bitartean, gazte eta umeak elkarriketatzeaz gain, euren guraso eta tutoreak ere elkarriketatu zituzten.

Etnia, arraza, erlijio edo genero arrazoiengatik ematen den bazterkeriak eragiten ditu herri-gabetasun kasurik gehienak. Aberrigabe gehienak gutxiengo egoeran diren taldeetako parte dira eta hogeit hamar herrialdek baino



Emakumeek bazterketa bikoitza sufritzen dute. Hainbat herrialdetako legeen arabera, gizonek ez bezala, amek ez dute seme-alabei euren naziotasuna transmititzeko eskubiderik

Aberrigabeei hezkuntza oztopoz betetzen zaie. Maiz, ez diete klasera sartzen uzten, zerga garestiagoak ordaindu behar dituzte eta kurtso amaierako azterketak egitea debekatzen diete

gehiagok erlijio, genero, etnia edo arraza arrazoiak tarteko naziotasuna ukatzen duten legeak dituzte. Emakumeek bazterketa bikoitza jasaten dute zenbaitetan, izan ere, 27 herrialdek dituzten naziotasun legeen arabera, gizonezkoekin gertatzen ez den bezala, amek ez dute seme-alabei euren naziotasuna transmitzerik.

Jaiotzen erregistro baten existentzia faltak berak arazoa areagotu egiten du, pertsona hauek ezin dutelako frogatu beharrezkoak diren loturak dituztenik Estatuarekin. Migratzaile eta errefuxiatuei eragiten die arazok bereziki. Jaiotza erregistroa oso baliotsua da, adibidez, asiloa hartu duten herrialdeetan jaiotzen diren siriarrak umeentzat, gehienak gurasoengandik edo familiengandik bananduak izan direlako. Siriarrak direla bermatuz gero, Siriara bueltatzeko aukera izango lukete behin guda amaitutakoan.

HEZKUNTZA

Ezbairik gabe hezkuntza da elkarriketatuetatik gehien larritzen dituen. Bazterketa eta trabak salatzen dituzte. Batzuetan gelara sartzea ukatzen zaie, bestetan zerga garestiagoak ordainarazten zaizkie atzeritarrak bailiran, kurtso amaierako azterketak egitea debekatzen zaie edo diploma atxikitzen zaie ikasketetan aurrera egin ez dezaten. «Oso nota onak ateratzen ditut, agian ikasgelako onena naiz, baina, aldiz, beka bat dagoen bakoitzean identifikazio nazionala duen norbaiti ematen diote», kexatzen da 15 urteko Patcharee gaztea. Thaiandiako mendietako tribu bateko kidea da. Bere alboan, Boon izeneko lagunak ume orok ikasketen eskubidea aldarrikatzen du. «Hori da garrantzitsua», dio.

Txostenak ere erakutsi du zeintzuk izan daitezkeen ikasketak ukatzeak izan ditzakeen ondorio tamalgarriak. Edwinek 16 urte ditu eta Malaysiakoa da. Jatorriz tamila da eta ez diote aberririk aitortzen. Eskolara ez joatea oso gogorra izan dela aitortu du. Umezurtz gelditu zen txikia zela eta adopziozko



Zainab, bere haurtxoarekin. Siriarrak errefuxiatuak dira eta Jordanian bizi dira. UNHCR



Christina Italian bizi da eta ijitoa da. UNHCR

etxe batean hazi zen, beharrezko zaintza eta babesik gabe. Nortasun agiririk ez dutenei ezarritako ikasketa zerga garestiak medio, ez zen eskolara joan. Konpainia txarrak, alkohola eta drogak etorri ziren ondoren. Errehabilitazioan dago gaur egun, baina Edwinek lotura zuzena egiten du gertatu zaionaren eta eskolara joan ez izanaren artean. «Eskolara joan izan banintz ez nuke egin nuena egingo; Malaysiako selekzioko futbolari izateko ametsa eskurtzeko lanean egongo nintzateke. Nire estiloa propioa dut. 'Edwin estiloa' izena du. Ronaldorena baino hobea da, nahiz eta berak inspiratu duen», dio, umeen inozentziak.

Autoritateek modu erabat arbitrarioan jokatu dute. Alejandra, bere anaiak ez bezala, ez doa eskolara. «Nire anaietako batzuek dokumentuak dituzte eta unibertsitatean joan dira... Nik, ordea ezin dut, guraso berberak izan arren», azaldu du Dominikar Errepublikatik.

OSASUNA

Dokumentu falta ere oztopo da osasun zerbitzuetan artatua izateko. Oso urrutira joan gabe, Italian bertan gertatzen da, ijitoekin. Christinak 18 urte ditu eta desgaitasun fisiko eta psikologikoak ditu. Gorpildun aulkian dago. Gurasoak askotan kexatu dira pediatria zerbitzuak erabili ezin izanarekin, eta, eritasunak arinak direnean ere, larrialdi zerbitzuetara jo behar dute. Sandokan, Christinaren aita, kezkatuta dago. «Bizi naizen bitartean zaindu ahal izango dut alaba, baina ezingo dut datorren hogeita hamar edo berrogei urteetan egin. Estatuaren laguntza behar dut. Naziotasunarena da nire alabak duen eskubide bakarra», salatu du.

Hezkuntzan gertatzen den bezala, osasun tasa garestiagoak ordainarazten zaizkie aberrigabeei, eta horietako asko zorpetu egiten dira lagun edo bizilagunei eskatzen dizkieten maileguengatik. Pratap, 15 urteko gazte Malaysiarrak, lesio larria sufritu zuen hankan futbolearen ari zela. Naziotasun faltagatik

EGOERA
ALDA
DEZAKETEN
HAINBAT
URRATS

Leku batzuetan, UNHCR lherlarientzako Nazio Batuen Agentziaren hitzetan, piztu da itxaropenaren argia, izan ere, Gobernu batzuk ohartu dira aberrigabe gazteei naziotasuna emateak onurak izango dituela, gazteok aletxoa jar dezaketelako aberastasunean, komunitateen segurtasunean eta ongizatean.

Asko dago egiteko, ordea, bereziki osasuna eta hezkuntzari dagokionez. #IBELONG izeneko kanpainarekin, UNHCR berak hamar urteren buruan herrigabetasunarekin bukatu nahi du, eta, horretarako, hainbat urrats identifikatu ditu.

Besteak beste, umeak jaiotzen diren herriko naziotasuna jaso ezear aberrigabe bihurtuko balira, amek seme-alabei naziotasuna transmititzea debekatzen duten legeak ezabatzea, arraza, etnia edo erlijio arrazoiak tarteko naziotasuna ukatzen duten legeak indargabetzea eta jaiotza-erregistroan sartzeko eskubide unibertsala gizaki orori aitortzea eskatu du. Siriako gerrari eta errefuxiatuen egoerari aipamen berezia ere egin dio txostenak; lau milioi lagunak beren etxea utzi dute eta ume asko daude aberrigabe bihurtzeko arriskuan, aitarengandik soilik jaso baitezakete naziotasuna. Datu oso kezagarria da benetan, are gehiago Siriako etxeetako %25 aitarik gabe utzi dituelako gerrak.



ospitaleak ez zuen artatu nahi izan. «Amorrua sentitu nuen inork ez ninduelako lagundu nahi, nahiz eta min handia izan. Larrialdi egoera bat zen, eta, hala ere, nire egoera juridikoa aztertu zuten. Edozein malaysiar bezala herri honetan jaioa naiz. Zergatik sufritu behar dut horrela?», galdegiten du, etsita.

Maileguak eskatzea ez da bate-
re erraza eta umiliatuta sentitu direla aitortu dute guraso askok. «Ospitalean lapurretan ariko banintz bezala tratatu ninduten. Horregatik ezin dut berriro joan», nabarmendu du 22 urteko Kavita, Malaysia bertatik.

Umiliazioa da, hain zuzen, parte hartzaileek askotan errepikatu duten sentimendua, baina ez da bakarra izan: «ikusezin», «baztertuta», «itzalean», «kale zakur» eta «baliogabe» sentitu izan dira maiz aitortu dutenez.

LANA, JOLASA BEHARREAN

Haur izatea. Horixe ukatu zaie ikerketarako lekukotasuna eskaini duten protagonistei. Bazterketak hezkuntza sistema-

tik kanporatu ditu eta, horren-
bestez, lanean jarri behar izan dute, muturreko kasuetan abusuak eta esplotazioa sufrituz.

Dominikar Errepublikako zenbait gaztek onartu zuten udaran ez zutela jolaserako, aisialdirako tartetik hartu, zabortegietan lanean aritu zirela bai-
zik, saltzeko metal piezen bila. Joe da horietako bat. Macoris zabortegian egoten da. Egunean dolar bat irabaz dezakeela dio. Matematikak gustatzen zaizkio bereziki eta eskola atsegin du, baina handitan beisbol jokalaria izan nahi du, herrialdeko kirolik

Joe 13 urte ditu eta
Dominkar Errepublikan bizi
da. Eskolara joatea
gustatzen zaio, baina
bereziki beisbola maite du.
Udara zabortegian metal
zatien bila igarotzen du,
jolasean beharrean.
UNHCR

Aldaketa txiki batzuk ematen ari dira, esaterako, Boli Kostan. Prozedura baten bidez, naziotasuna eskura dezakete orain herrialdearekin luzarotik lotura duten

«Umiliazioa» da txostenean parte hartu duten haur eta gazteek errepikatu duten sentimendua. Maiz «ikusezin», «kale zakur» eta «baliogabe» sentitu izana aitortu dute

ospetsuena. «Udara honetan ta-
malez ezin izan dut jokatu». Heldu izatera goizegi derrigortuta daudela salatu du UNHCR berak. Nahiz eta askok iaiotasun berezia erakutsi beisbolean aritzeko, euren egoerak ez die trebetasun hori garatzen uzten, eta aisialdiaren ateak soilik ez, lehiaketarenak ere parez pare ixten dizkiete. «Nire seme-
ari talde batean sartzea eskaini zioten beisbolean aritzeko, baita nazioarteko txapelketetan aritzeko ere, baina paperik gabe ez dago talde bakar batean ere izena emateko aukerarik», azaldu du etsita ama batek.

Boli Kostako David mutikoak ere ezin du eskolara joan dokumentuak ez dituelako –abandonatu egin zuten jaio zenean–, eta, egoera horrek osasun ondorioak eragin dizkio 10 urteko mutikoari. Inkontinentzia du eta bakarrik egin behar du lo. Bere lagunak eta adopziozko anaiak eskolara doazen bitartean, bera etxean gelditzen da, etxeko lanak egiten eta familieren ardiak larreetara eramaten.

Odile eta Clementine 21 eta 22 urteko ahizpen kasua muturrekoa da. Abiyanen bizi dira, Boli Kostan, eta ez diete aberri-
rik aitortzen. Dokumenturik ez zute-
nez, oso txikiak zirela jatetxe batean lan egitera derrigortu zituen “zaintzen” zituen izeba-
bategi eta, ondoren, euren buruak prostituitzera derrigortu zituen. «Dokumenturik gabe harrapatuta ginen», aitortu zuten. Egoera oso larria izan zenean soilik batu zuten ihes egiteko indarra.

LANA, JOLASA BEHARREAN

Amatea naturala da gizakiaren-
tzat, bereziki nerabezaroan. Etorkizunean pentsatu, zer izan nahi dugun imajinatu, eta hori lortzeko ahaleginak egin. Amesten uzten al zaie orriotako protagonistei? «Nire bizitza gal-
dera ikur handi bat da», dio Malaysiako Vikash gazteak. 23 urte ditu eta ikasketak uzteko garaia gerturatzen doan neurrian –paper faltan ez diote aurrera egiten uzten–, «inpaktu handia» sentitzen duela aitortu du. Jarraian «frustrazioa», «ezine-
gona» eta desilusioa» aipatu ditu. Gazte honek bezala, txostenean agertu diren beste askok bidaiazteko gogo-
a adierazi zuten atzerrian lan egin ahal izateko, baina ez dute apenas mugit-
zerik, bidaia atxiloketa batekin buka daitekeelako.

Dominikar Errepublikako Ja-
vier 19 urteko gazteak eraikun-
tzan egiten du lan, baina beste aspirazio batzuk ditu. Tamalez, Gobernuak ez dio bidea erraztu nahi. «Zuzenbidea ikasi nahi dut. Nire ametsa jendea lagundu ahal izatea da».

Formakuntza profesionalaren bidea itxita, askok ikastaro osagarriak egiten dituzte, edo bo-
luntario gisa egiten dute lan. Va-
lentino, 21 urteko ijitoak, bere herriko udal agintariak konben-
tzitu zituen okina izateko ikas-
taro bat egiten uzteko. «Pizza egiteko oso gai naiz egun. Lagun baten pizzerian lan egin nuen eta bezeroek maisu pizzagilea zein zen galdegiten zuten!», dio pozarren. «Lana eta etxea nahi ditut. Bizitza normala. Besteentzat arruntak izan daitezke gauza hauek, baina niretzat ez».

ARGENTINA

Oinordetza ekonomikoak trebetasun politikoa exijitzen dio Macriri

 POLITIKA / Daniel Galvalizi

Cristina Fernandez garaiko bilakaera ekonomikoak eragin du Mauricio Macri presidente berriak merkatuari begira egindako keinuak plazaratzea, baina oraindik ez ditu ezagutzera eman nahi herritarren gustuko izango ez diren neurriak. Kirchnerismoak zituen gabezieta batzuk baliatzen ditu bere posizioa indartzeko.

Azkenengo hama-bi urteotan jaso dudatan tankerako lehen gonbidapena da eta erabakia goraipatu beharrean nago», esan zuen Margarita Stolbizer presidentetarako hautagai ezkertiarak Mauricio Macri presidentearekin Etxe Arrosan bilera egin ondoren eskaini zuen prentsaurre-

koan. Agintari berriak azaroaren 22ko hauteskundeetan izan zituen lehiakide guztiak gonbidatu zituen bertara, berarekin batera herrialdearen egoera aztertu eta elkarrekin lan egiteko aukera eskaintzeko.


Stolbizerrek esandakoaren tankerako mezuak eskaini zituzten Daniel Scioli kirchneristak eta Sergio Massa oposizioko peronistak ere.

Mauricio Macri abenduaren 10ean, presidente kargua hartu zuen ekitaldirako prestatzen ispilu aurrean.
AFP

Argentinan abian jarri den aro politiko berriaren ezaugarrieta-ko bat da oposizioko ordezkari-ekin hitz egiteko geratzea: Gobernu berriak aurrekoa baino hobea dela adierazi nahi du aurrean jartzen zaizkion aukera guztietan, eta inkesta guztiek oso garbi azaltzen dute zeintzuk ziren Cristina Fernandez agintaldiko gabeziak, herritarrek gehien arbuiazen dituztenak: erabateko autoritarismoa, amorrua eta saihestu daitezkeen gatazkak betikotzeko joera.

HITZ EGITEKO PREST

Cambios Mauricio Macri presidente kargura eraman duen koalizioko kanpaina zuzendu duen talde sofistikatuak hasiera-hasieratik zekien zeintzuk ziren Cristina Fernandez agintaldiko hutsuneak. Horretxegatik, Macriren kanpaina gehien erabili diren hiru leloetako batek zioen "Argentinarrak batu" (pobreziaren aurkako eta



hazten ari diren drogamenpeko-tasunen eta horiekin lotutako delinkuentziaren kontrako me-zuekin batera).

Argentinako presidente be-
rriak badaki ez Kongresuan eta
ez Senatuan ez duela bere alde-
ko gehiengorik. Aldi berean, ba-
daki elkarrizketarako irekitasu-
na agertuta, bere aurrekoaren
itxitasunarekin alderatuta,
abian jarri nahi dituen errefor-
mak aurrera atera ahal izateko
beharrezkoa duen kapital politi-
koa eskuratuko duela.

Ekonomiari dagokionez, Ar-
gentina ez dago bere momentu-
rik onenean. Hala ere, herritar
askorentzat egoera ez da hain
larria, 2001eko krisi suntsitzai-
learekin alderatuta bederen.
Gauza bera gertatu zen 2009an
izandako atzeraldiaekin ere.

Bestalde, herritar gehienek
gaitzesten dute Cristina Fernan-
dezen gobernuak egindako ku-
deaketa ekonomikoa eta orain
arte inflazio handiak argentina-
rrak gehiegi kezkatu ez baditu
ere, hori aldatu egin da eta une
honetan ez dago horrelako tole-
rantziarik: aurten %25 inguru-
koa izango da inflazioa, eta ia
%38raino iritsi zen, bat-batean
egindako argentinaren pesoaren
debaluazioaren eraginez.


ESPORTAZIOAK

Argazkia osatzeko beste datu ba-
tzuk ere aipatu behar ditugu.
Konpainia pribatuetan ia ez da
lanpostu berririk sortu azken
lau urteotan. Bestalde, indus-
triaren ekoizpenak hondoa jo
zuen eta une honetan burua al-
txa ezinik dabil eta Argentinak
gero eta produktu gutxiago es-
portatzen ditu. Hala ere, espor-
tatzen diren produktuen balioa
inportatzen direnena baino
handiagoa da oraindik, baina,
alde horrek, merkataritza supe-
rabitak, azken hamahiru urteo-
tan beherako joera izan du.

Edonola ere, ekonomiaren sa-
soiaren berri ematen duten
adierazle guztien artean kezka-
garriena, begirale askoren ara-
bera, defizit fiskalari dagokiona
da. Une honetan barne produk-
tu gordinaren %8koa da. Gaine-
ra, oso kezagarritzat hartzen da
dolarren inguruko nahaste-

**Badaki elkarrizketarako irekitasuna agertuta,
bere aurrekoaren itxitasunarekin alderatuta,
abian jarri nahi dituen erreformak aurrera
ateratzeko kapital politikoa eskuratuko duela**

**Ekonomiari dagokionez, herritar askorentzat
egoera ez da hain larria, 2001eko krisi
suntsitzailearekin alderatuta bederen. Gauza
bera gertatu zen 2009ko atzeraldiaekin ere**



Debaluazioaren aurkako manifestari bat. Eitan ABRAMOVICH | AFP

borrastea: herrialdeak lau kan-
bio-tasa ezberdin ditu. Gainera,
insumoak –ekoizpenerako era-
biltzen diren gaiak eta produk-
tuak– inportatzeari mugak ipini
zaizkio, eta, pesoaren balioa
handitu denez, esportazioen
lehiakortasunak behera egin du.

Kirchnerismoak arazo horiei
aurre egiteko lanpostu publiko
asko sortu zituen, kalterik la-
rrienak saihestu nahian. Gaine-
ra, gizarteko sektore pobrenei
gizarte laguntzak eman zitzaiz-
kien. Macrik bat egin du neurri
horiekin, nahiz eta bera merka-
tuaren aldeko liberal amorratua
den. Hauteskunde kanpainan
zehar adierazi zuen lanpostu
eta laguntza horiei eutsi egingo
diela.

Cristina Fernandez agintal-
diko azken hiru urteen ezauga-
rri nagusia izan zen arazoak ku-
deatzeko joera, baina epe luzera
arazook konpontzeko ezer egin
gabe. Horregatik, Argentinako
ekonomiak dituen patologiak
konponduko zituztela agindu
zuten hautagai guztiek, baita
Scioli Fernandezek aukeratuta-
ko hautagaiak berak ere.

ZERGAK ETA DEFIZITA

Mauricio Macri iritsi zen Gober-
nura abenduaren 10ean eta le-
hen egunetan kanpainan zehar
agindutako gauzetako bat bete
ezinik geratu zen. Kanbio mu-
rrizketak bertan behera utziko
zituela agindu zien argentina-
rrei, baina Alfonso Prat-Gay Fi-
nantza ministroak esplikatu be-
har izan du agindutakoa beteko
dutela horretarako bandintza
egokiak izaten direnean, ez le-
hen egunetan, Macrik agindu
moduan. Baldintza horiek bete-
tze aldera, dibisa asko lortu be-
har du Estatuak, azken urteotan
gertatu ez dena. Hori lortzeko,
nekazaritzako produktuek eta
elikagaiek zerga gutxiago or-
daindu beharko dute esporta-
tzeko garaian. Agintariek uste
dute bide horretatik dolar asko
iritsiko direla Argentinara.

Defizit fiskala murrizteko hel-
buruarekin, kanpainan zehar
Macrik agindu zuen zerbitzu
publikoen erabilerari ematen
zaizkion diru laguntzak murriz-
tu egingo dizkietela irabazi



Goiko irudian, Mauricio
Macri eta bere
ministrotako batzuk,
hilaren 2an Lorategi
Botanikoan egindako
argazkian.
Eitan ABRAMOVICH | AFP



gehien duten herritarrei. Neurri hori ere, herritar askok gaizki hartuko dutena, noiz beteko duten ez dakigu oraindik.

Harritzekoa bada ere, Mauricio Macrik iragarri du ez duela oraingoz Parlamentuko saio berezirik deituko. Beraz, uda osoa egingo dute parlamentariak lege berririk abian jarri gabe.

Presidente berriak lehenbailehen konpondu nahi duen kontua Banku Zentralari dagokiona da. Macrik Bankuko presidente karguan Federico Sturzenegger ipini nahi du, dekretu baten bitartez. Bere aurrekoa Alejandro Vanoli kirchnerista zen: hasiera batean adierazi zuen agintaldi osoa beteko zuela karguan, baina azkenean kargua uztea onartu du.

PESOA DEBALUATU

Argentinan askok ziurtzat jotzen du datorren urtean herritarrek onartzen ez dituzten neurriak hartuko dituztela. Lehenengoa argentinan pesoa debalutzea izango da, bere balioa dolarren legezko salneurriaren eta le-



Macri, Alicia Kirchner Santa Cruz probintziako gobernadore eta Nestor Kirchner zenaren arrebarekin. GAUR8

gez kontrakoaren artean ipintzeko asmoarekin.

Bestalde, Cambiemos koalizioan badakite oso gutxigatik irabazi ziotela kirchnerismoaren hautagaiari: botoen %3 besterik ez, hauteskundeetako bigarren itzulian. Egiten duten irakurketaren arabera, herritar asko 1990eko hamarkadan izan zen neoliberalismoaren itzuleraren beldur dira, ez baititu ahaztu joera politiko hark herrialdean eragin zuen txikizioa. Eta Gobernu berriko agintariak ezin dute kendu beldur hori beren buruetatik.

Bere posizio politikoa indartzeko helburuarekin, Cambiemos koalizioak eragin handiko agenda bat atera nahi du aurrera. Argentinako iparraldeko eskualde pobretuetan azpiegitura ugari eraiki nahi dituzte.

Gainera, peronistak nagusi diren lekuetan bertako gobernadoreekin etengabe hitz egin nahi dute, era horretan gero Parlamentuan horien babesa lortuko dutelakoan.

Benetako agintea lortu ahal izateko, beharrezkotzat jotzen dituen legeak aurrera atera ahal izateko, Macrik bere jarrera aldatu du zertxobait, Cristina Fernandezek zituen gabeziak bere alde baliatu nahian. Gabezia horiek izan ziren bere garaipenaren oinarria eta hauteskunde kanpaina zehar bere burua aurkeztu zuen polarizazioaren, amorraren eta sektarismoaren kontrako bezala.

Kanpaina egindakoari Gobernutik jarraipena emateko, hauteskundeetan izan zituen aurkariak deitu zien, elkarlana proposatzeko. Parlamentuan presidente kargua hartzeko eskaini zuen hitzaldian eskatu zuen gaizki egiten duenean esateko, eta beldurrik gabe proposamenak egiteko.

Macrik beste neurri aipagarri bat ere hartu zuen bere lehen egunean, eta oso merke gainera. INDEC Estatistika Institutuaren lana ez da fidagarria izan azken bederatzi urteotan. Erakundearen buruan Jorge Todesca ipini du, eta, ondoan, Graciela Bevacqua, aurreko Gobernuak bere garaian kargutik kendutakoa.



Oier Gorosabel
Fisioterapeuta eta osteopata

«Text neck» delakoa

Gogoratzen al dituzue almoada zerbikal famatuak? Erredundantzia izateaz gain (almoada guztiak zerbikalak baitira: al-mujadda, «masaila ipintzeko kuxina»), lepoko mina zutenen ezinbesteko osagarri bezala saldu ziren orain dela urte batzuk, marketin kanpaina bikainari esker.

Moda kontu guztiak bezala, etorri bezala joan ziren. Bide beretik abiatu da *text neck* delakoa konpontzera datorren kokots-euskailuen kontua, euskal sare sozialetan nahikoa zalaparta eragin duena Teknopataren Txokoan eginiko bideo barregarriari esker.

Joan den hilean bertan aipatu nuen gaixotasunaren promozioaren kontua. Alegia: osasun arazo txiki bat hartzea eta, publizitate egokiaz lagunduta, jendeari ezinbestean tratatu beharreko arazoa dela pentsaraztea (gehienetan, produktu edo tratamendu jakin bat erositik). Almoada zein euskailu zerbikalen kasuan, osasun arazo beraz ari gara: jende sedentarioari egiten zaion bizkarreko mina. Lana, ikasketak edo bestelako arrazoiengatik nahikoa mugitzen ez den jendeak bizkarreko muskulu zein giltzaduretan gogortasuna eta mina piltzeko joera baitu; behin puntu honetara ailegatuta, eguneroko aktibitate normalak ere mingarriak bihur daitezke. Baita etzanda egotea edo mugikorra laztantzea ere, noski. Gaixotasun saltzaileek egoera horretan dauden artean bilatzen dituzte bezeroak; informazio nahikoa ez baduzu, edo ez baduzu pentsatzeko astirik, produktu miragarriek eskaintzen dizuten soluzio bizkor eta merkeen tentaldian erortzeko arrisku handia duzu.

Almoada, kokots-euskailua, txaleko elektroestimulagailua, plataforma bi-bratzailea, aulki ergonomikoa, late-xezko koltxoia... engainurako hamai-ka aukera daude, eskrupulorik gabeko saltzaileak beste. Halere, ia denak ezaugarri komuna dute: zure bizimodua zipitzik aldatu gabe, mina kenduko dizutela agintzea. Hori ezinezkoa da, noski: baina gezurak sinesteko prest dagoen jende asko dago, gozoa

baita norberak entzun nahi duena aditzea. Horretara, negozioak aurrera egingo du. Hurrengo moda etorri arte.

Halere, ezin dugu esan mongerrek saldu nahi dizkizuten produktu horiek balio ez dutenik. Kokots-euskailura itzuliz, ezin dugu esan lepoko muskuluei atsedeen emateko balio ez duenik. Hori horrela baita. Baina... engainua egia osoa ez esatetik dator.

Alegia: lepoko min txikia dugunean koilarina jartzea gehiegizko neurria dela (kokots-euskailuen funtzioa horixe bera baita), eta tarteka atsedeen hartzeak, eta lepoa ezker-eskuma pixka bat mugitzeak, gailu horrek baino askoz ere mesede gehiago egingo dizula. Dohainik, jakina.

Beraz, egun osoa telefonoa balakartzten ematen duzuenon *text neck* «sindrome» hau ez da nobelak irakurtzen aritzen denarena baino larriagoa. Mugikorzeleok egiten duzuen esfortzua, eta pertsona altu batek bera baino txikiagoekin hitz egitean egiten duena berdintsuak dira. Arazoa ez dago «buruaren keinuan»: egun osoan buruaren keinu horrekin «ordu asko pasatzean» baino.

Kokots-euskailu eta bestelako produktu miragarrietan dirua alferrik gastatu barik, telefonoarekin zabiltzanean atsedena sarri hartu, mugitu burua eta sorbaldak, eta eman izena herriko kiroldegian. •

www.abante.eus



Telefonoarekin zabiltzanean, atsedena hartu sarri, lepoko mina samurtzeko.

GAUR8

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

A20: nafarren bigarren itzulia eta EAĒkoen lehena

Euskal Herriko politiko, kazetari eta herritar ororen artean ere, nahi baino gehiago onartuta dago biharko hauteskundeek abizena: “orokorrak”. Harrokeria puntu ukazina badu hitzak. Nolabait, guztiok “estatalak” deitu beharko genituzkeenak nagusiak, gorenak, lehen mailakoak, interes orokorrekoak direla irudikatu nahi du. Izendapenak oraindik itsusiagoa eta arrotzagoa egiten digu lehia. Diputatuen Kongresua baino agertoki desatseginagorik ez dago euskal subkontzientean: bertan erregetu zuten frankistek Juan Carlos I.a, borboitarren dinastia berrezarrit; bertan eman zen Otsailaren 23ko pantomima negargarria; bertan hitza hartu nahi izateagatik hil zuten tirokatuta Josu Muguruza; bertan eman zioten Juan Jose Ibarretxeri ostikoa ipurdian...

Bihar nahi den orduan tartetxo bat hartu eta hautes-tontzietara hurbiltzeko ariketa erraza ez egiteko erabakia hartua zuenak bere buruari arrazoia emateko aitzakia gehiago pilatuko zituen bukatu berri den kanpainan. Hauteskundeok are “orokorrragoak” bihurtu dizkigute, astiro aztertzea komeni den hainbat aldagairen erruz: Espainiako berpizte politikoa eta Euskal Herrikoaren geldotzea; Iglesias eta Riveraren *rock* eta *pop star* izaera are diriratsuago egin duen telebistaren nagusitasuna; espainiar politikaren arinkeria eta huskeria bolbora bezain azkar eta urrun eramaten duten sare sozialak... Baina arrazoi denak ez dira koiunturalak edo teknologikoak, ez, negargarri samarrak baizik. EAĒ eta EH Bilduren arteko harremana txarra dela onetsita ere, nolatan ez da posible bien arteko eta bien onerako estrategia adostu bat Euskal Herriko kanpaina Espainiakoaren aurrean ozenagoa egiteko, hemengo arazo eta eztabaidak nagusi bihurtzeko, hemengo hautagaien arteko buruz buruko, launakako edo seinakako eztabaida mamitsu, jator eta Madrilgoak bezain erakargarriak egiteko? Espainiar agendaren menpekotasunak argazki bitxia utzi digu aste honetan, zinez erridikulua: Kabulén hildako bi polizia espainolen aldeko Iñigo Urkullu EAĒko lehendakariaren isilunea.

Harrigarria egingo zaio askori, baina nonbait hemengo agenda nagusitu bada, Nafarroan izan da. Maiatzean gertatu zen irauliak “bigarren itzuli” kutsu nabaria, erabate-

koa, eman dio biharko deialdiari. Orduko akats aritmetikoa zuzendu nahian-edo, udaberrian baztertutako PPrekin bozak batzeko erabakia hartu du orain UPNk, baina zenbakitan irabaz dezakeena sinesgarritasun politikoan galdu du, Javier Esparzak kontrakoa iragarri arren UPN oraindik betiko eskuin espainiarzalea dela agerian utzi baitu. Bestaldean, aldaketa eragin duten indarren artean, benetako emergenteak, lehia sana Kongresuko eserlekuetarako eta batasun ariketa txalogarria Senaturako. Kosta egiten da sinestea, baina aurreko belaunaldian Nafarroan jaun eta jabe izan zen PSN Kongresuan ordezkari gabe gelditu litekeela adierazten dute inkesta batzuek. Nabarmen ez bada ere, maiatzean batzuen eta besteen artean izandako alde eskasa zertxobait behintzat handitzea lortzen bada, aldaketa kalean bide onetik doala eta erakundeetan zuzen ari dela egiaztatuko da. Beraz, Nafarroan botopaperik ez hartzeko, aitzakia gutxi.

«Artaburu» deitu zien Antiguedadek duela lau urte «sekuentzia» ulertzen ez zutenei. Nafarroan aldaketa sendotzeko aukera paregabea dago jokoan bihar, eta, EAĒn, lozorrotik ateratzen hasteko aukera

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, aurreko hauteskundeek baino urtearen bueltan datozenek begiratu behar zaie. Egitaraua duela lau urteko berdina da, eta orduantxe Iñaki Antiguedadek BECen bota zuen esaldi borobil honek oihartzun handia izan zuen: «Baten bat bada hemen, edo zuek ezagutzen baduzue, independentista peto-petoa dena eta duda-mudatan dagoena, ‘¿cómo voy a votar yo a esas cámaras españolas?’ eta horrelakoak adieraziz, lasai asko esaiozue: ‘Artaburu! Ondo pentsatu zein den sekuentzia!’». Madrilgo lurrak ez dira emankorrak, badakigu, baina bertan ereiten dena jarraian Gasteizen jasotzeko aukera errazten du bertako lanak. Eta badabil hortik Iñigo Urkulluk hauteskundeak aurrera ditzakeen zurrumurrua, Arnaldo Otegiaren kale-ratzearen eraginaren beldurrez edota ezker abertzaleak bere estrategia indartzeko prozesuari aurrea hartzeko. •

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Illunbeko plaza eta txapela, zortzikotea biribiltzeko prest

📁 **BERTSOLARITZA** / Amagoia Mujika Telleria - Maider Iantzi Goienetxe

Illunbeko plaza biribila, Gipuzkoako txapel biribila eta zortzi bertsolari saio biribila egin nahian, edo karratua, bakoitzak nahi formakoa behintzat. Bertsokera eta ahots propioko zortzikotea iritsi da azken geltokira eta finalak baditu osoa izateko osagaiak. Baloi handi batekin jolasean jarri ditu argazkilariak, «hauxe duzu bertsoa osatzeko puntua» zirikatuz. Batzuek ageriago eta besteek disimulatuago, baina denek agertu dute beraien nortasunaren tasunen bat baloiarekin sesioan. Gaurko finala ere bikaina izan daiteke norberak beretik ematen asmatzen badu.

ARKAITZ OIARTZABAL AGIRRE «XAMOA»

OIARTZUN, 1985

«Entzuleari erantzun egin behar zaio eta ez nator Illunbera arratsalde pasa»

Amagoia Mujika Telleria

Lehen finala du. Galtzeko gutxi eta irabazteko asko duela jakinda ere, arduraz bizi du Illunbeko hitzordua, oholtzara igotzen den bertsolariak maila eman behar duela garbi baitauka. Entzule bezala oso exijentea omen da, eta berak exijentzia maila altuenak asetu nahiko lituzke.

Maiatzean txapelketan abiatu zinenean, zure helburuetan ba al zegoen Illunberako txartela?

Ez dakit. Ezin dizut ezetz esan, ezta baietz ere. Illunbe hor dago, eta badakizu Euskal Herriko Txapelketarako sailkatu nahi baduzu Illunbekoa baino eskailera bat beherago gutxienez iritsi behar duzula. Gipuzkoan finalera irits zaitzek? Bai, eta ez ni bakarrik, ni bezala bertsolari asko daude finalera irits daitezkeenak, baina parean egokitu behar dira gaiak, egunak, zorte pixka bat... Ez zen nire helburua Illunbe, baina ez nituen finalerako atea ixten. Zergatik ez? Garbi neukana zen Euskal Herrikoan parte hartzeko txartela nahi nuela, helburua hor nuen jarria. Eta hortik

aurrerakoa, bada primeran.

Aitonak zer dio?

[kar, kar, kar] Nire aitona kasu berezia da niretzako. Aitona zedozer ibili zen bertsotan, aita eta osaba ere ibiliak dira, eta orain Josu lehengusua eta biak aritzen gara. Aitonak beti gozotasunez esan dit ahalegintzearekin nahikoa egiten dudala, eta txapelketa guztia hori esaten pasatu du. Baina Eibarko saioaren aurretik «*ttukenak han utzi*» esan zidan. Eta etxera bueltatu nintzenean, ja enteratuta zegoen finalista nintzela, pozik zegoen eta hala esan zidan: «hirugarrenetik behera egiten baduk ez haiz etxe honetan sartuko». Illunbera gonbidatu dut, baina segur aski etxean ikusiko du finala, pattal samar dabil-eta.

Kanpotik ikusita badirudi toki eroso duzula finalean. Lehen aldiz finalista, irabazteko asko eta galtzeko gutxi.

Bai, galtzeko batere ez. Baina ni zortzikotean kokatzen naiz, bertsokak bizitzeko nire moduak oso gutxi baitauka norbanakotik. Nik bertsoa talde girotik bizi dut.

Esaterako, bertso saioetatik gutxiena gustatzen zaidana da herri batera edo bestera bakarrik joatea egokitzen zaidanean.

Egia da presio handirik ez dudala sentitzen, baina, aldi berean, milaka bertsozaleren aurrean kantatzea erronka bat da. Bertsotan permisibitate gutxi egoten da; oholtzara igotzen zaren unetik bertsolaria zara eta eman beharrekoa eman behar da. Nik badakit entzule bezala zein exijentea naizen eta badakit nirekin entzule direnak zein exijenteak izaten diren. Beraz, sekulako presiorik ez, baina pixka bat bai, final bat delako eta onena eman behar delako.

Bertigorik sentitzen duzu?

Bertigoia akaso ez, baina bai erronka nire buruarekin. Nik bertso txapelketetako liburu asko irentsi ditut eta liburu horietan agertzea final on bat egin duzulako gauza ederra da. Entzuleari erantzun egin behar zaio eta ez nator Illunbera arratsalde pasa.

Bi oiartzuar finalean.

Alaia oso gertukoa dut nik eta polita da biok finalean egotea. Jon Martin aurten ez dago



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

«Bertsotan permisibitate gutxi egoten da; oholtzara igotzen zaren unetik bertsolaria zara eta eman beharrekoa eman behar da. Nik badakit entzule bezala zein exijentea naizen»

finalean, baina nik lortu dut iristea eta bi oiartzuar izango gara. Nire inguruan bada jende bat asko lagundu didana eta haiei esker nago hemen. Final bezperako egunetan gustatuko litzaidake lagun horiekin elkartu eta entrenatzea, haiek ere final honen parte senti daitezen.

Zerorri askotan aritu zara «sparring» gisa.

Bai, askotan. Adarra jotzen didate lagunak agur dezentetan aipatu nautelako. Niretzako talde sentipen hori abantaila handia da bertsotan egiteko. Ni *sparring* gisa aritu naizenean benetan eskertu dut taldeko kide izaten utzi didatelako, eta, orain, finalista naizela, berdin segitu nahi dut taldean lan egiten.

Amagoia Mujika Telleria

Hirugarren txapelketa eta bigarren finala. Duela lau urtekoa oparitan hartu zuen, zuzen bila joan gabe. Aurten, baina, presioa handixeagoa da Alaia Martinentzat; bai kanpotik bai, batez ere, bere barrutik. Baina presioa kudeatzen artista da oiartzuarra.

Zure hirugarren Gipuzkoako txapelketa da. Asko aldatu al da zure kokapena lehenengo hartatik?

Bai, batez ere hori sumatu dut duela lau urteko txapelketatik aurtengora. Hasieran kostatu egin zitzaidan txapelketa honetan kokatzea. Lehen saioaren aurretik –Zestoakoa– ez nekien oso ondo nire baitan zein jarrera eraman, zertarako prestatuta joan... Batzuetan badirudi txapelketan dena ematera joan behar dela eta ez zitzaidan jarrera hori naturalki ateratzen. Sentsazio horiek ondo etorri zitzaizkidan nire jarreraren inguruan hausnartzera behartu nindutelako. Egia da ardura pixka bat sentitzen nuela. Duela lau urte helburu jarri nuen finalerdietara ailegatzea eta lehen aldiz entrenatu nintzen txapelketa baterako serio samar. Hori lortu nuen eta finalista izatea aparteko bat izan zen, opari bat. Aurten, berriz, nire buruarekin zintzoa izaten saiatu nintzen eta sentitzen nuen helburua finalean zegoela. Txapelketan ohituta nago bidean harriak jartzen eta horien gainean aritzen. Aurten sentitzen nuen aurretik batere harririk jarri gabe abiatzen nintzela eta zalantza horrekin hasi nintzen. Orain arte nire burua estutzen aritu naiz, garbi neukan finalean egon nahi banuen lana egin behar nuela eta barruko presio horrekin aritu naiz. Beste presioak, kanpokoak, ez dit hainbeste eragin, baina bai nire baitako presioak.

Segurtasuna eta kontrola proiektatzen dituzu. Hori ere entrenatu egiten al da?
Nik uste zerikusia daukala lana

ALAIA MARTIN ETXEBESTE

OIARTZUN, 1987

«Onena emateko ondo prestatu zarela sentitzeak bakea ematen du»



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

egitearekin. Helburu bat baldin badaukazu eta horren alde lana egiten baduzu, gertu izango duzu helburu hori. Baina hori baino garrantzitsuagoa da norberaren buruarekin bakean egotea. «Onena ematera nator eta horretarako ahalik eta ondoen prestatuta nago». Sentsazio horrek bakea eta

lasaitasuna ematen ditu. Txapelketari garrantzia eman diodala sentitzeak, egin nahi dudanaren inguruan hausnartu dudala pentsatzeak, oholtzara ondo prestatuta igo naizela sentitzeak barruko bakea ematen dit. Eta ziurtasuna bake horrek ematen du, norberaren buruarekin gerran ez egoteak.

«Duela lau urte helburu jarri nuen finalerdietara ailegatzea. Hori lortu nuen eta finalista izatea aparteko bat izan zen, opari bat. Aurten, berriz, nire buruarekin zintzoa izan eta sentitzen nuen helburua finalean zegoela»

eta, hala ere, aurrera ateratzen ari nintzela. Distira baino lan gehiago egin nuen Zarautzen, bakarkakoan izan ezik. Bukaerako sentsazioa ona izan zen azkenean. Finalean ariketak teknikoki ez dira hain zorrotzak eta lan teknikoa eginda joango naiz, ahalik eta hitz gehien eskura izateko eta esan nahi dudana zehazki esateko. Gorputzaldi koloretsuagoa izateko egun bat dela iruditzen zait. Finala plazetan plazena da. Ea nik bilatzen dudana bake horrekin iristen naizen eta eman nahi dudana ematen dudana.

Teknika oso zaindua duzula nabarmentzen da, puntuak aise pilatzeko adinakoa.

Inguruan oso bertsolari teknikoak izaten ditut eta horregatik, akaso, ez zait iruditzen ni oso teknikoa naizenik. Oso gaztetxotan hasi nintzen bertso eskolan eta errimak topatzea beti izan da jolas bat niretzako. Ez dut sekula errima zerrenda bat egin, baina kalean hitz bat entzun orduko jolasean hasten naiz errima bila. Hala ere, aritzeak eta aritzeak ematen du teknika.

Txapelari begiratuko diozu?

Ez diot begiratuko, nahiz eta gustatuko litzaidakeen txapela janztea. Baina lehentasun mailan txapela baino gehiago inporta zait nire estiloarekin koherentea izatea eta distira uneak uztea. Zaila da azaltzen, baina gustatuko litzaidake sentitzea gai bakoitzean sartzen naizela, gaiarekin erabateko sintonia lortzen dudala, gorputz osoarekin kantatzen dudala... Gustatzen zait gaiak berak harrapatzen nauenean, barrura sartzen zaidanean eta hortik kantatzen dudanean. Hori da nire lehentasuna.

Hortik aurrera, txapela jantzi nahiko nukeen? Bai, final bat da eta denoi gustatuko litzauguke irabaztea. Ilusio handia egingo lidake. Baina garbi daukat lehentasuna bestea dela. Gainera, txapela etortzen da ez txapelaren bila abiatzen zarelako, gauzak ondo egiten dituzulako baizik.

Esan nahi duzunetik gertu sentitu zara?

Zestoako saioan bai, nahiz eta beti ikusten dudana zer hobetua saio baten ondoren. Zarauzko saioan ariketak zailagoak ziren eta lanera joan nintzen. Zarautzen gehien gustatu zitzaidan sentsazioa izan zen ez nintzela erabat eroso sentitzen

Amagoia Mujika Telleria

Faboritoen zerrendan dago. Ez da ez zerrenda zalea ezta faborito zalea ere. Duela zortzi urte plantatu zen Illunben; «zazpi zezen eta txahal bat». Txahala zen orduan, bai, baina barruan daukan bertsolaria handitu zaio. Oholtza azpikoa ere hazi egin da.

Illunbeko hirugarren finala eta zure hirugarrena. Aurreko bietan, bigarren. Asko aldatu da Beñat lehenengo hartatik. Hala espero dut. 2007. urtean inork ez zuen espero ni finalean egoterik, eta gutxiena nik espero nuen. Gainera, bigarren geratu nintzen. Gero eta kontzienteagoa naiz nolako zortea izan nuen, ni baino ibilbide luzeagoa zuten eta ni baino hobeak ziren bertsolarien aurretik nola geratu nintzen. Nola tokatzen ez zitzaidan leku batean egon nintzen. Uste dut duela lau urte, 2011. urtean, aurreko finalaren karga hori sentitu nuela. Erakutsi nahi nuen aurrekoa ez zela kasualitatea izan, erakutsi nahi nuen zenbat ikasi nuen eta demostratu behar horrek jan egin ninduen. Aurten lasaiago nator, ez dut sentitzen ezer demostratu beharra dudarik. Gainera, poliki-poliki ahots propioa hartzen ari naiz eta badakit gaiei nola eutsi nahi diedan. Hor daukat nire buruarekin lehia.

Faboritoen etiketa jarri dizute. Horrek karga dauka.

Hori ez dago nire esku. Nire esku dago ahalik ondoen aritzea. Eta beste gauzei nahiago dut asko ez begiratzea. Nik bertso bakoitza eta puntu bakoitza borrokatu nahi dut, eta duela lau urteko sentazio hori gainetik kendu. Lehertu egin nahiko nuke. Badakit ezin dudala duela zortzi urteko olatua sortu, jendeak ere desberdin ikusten nauelako, baina duela lau urte finalari ez nion nirea eman eta aurten hori lortu nahiko nuke.

Duela zortzi urteko finala gozamina izan zen. Finala olatu baten gainean egin nuen, agurretik hasita. Eta uste

BEÑAT GAZTELUMENDI ARANDIA

AÑORGA, 1987

«Sentitzen dut ahots propioa dudala orain, eta ez oholtzan bakarrik»

«Aurten lasaiago nator, ez dut sentitzen ezer demostratu beharra dudarik. Gainera, poliki-poliki ahots propioa hartzen ari naiz eta badakit gaiei nola eutsi nahi diedan. Hor daukat nire buruarekin lehia»



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

dut ondorengo urteak ere olatuaren gainean egin nituela. Duela lau urte olatua jaitsi zela eta zer egin oso ondo ez nekiela sentitu nuen. Eta orain badakit zer egin nahi dudan.

Emozioen memoria bizia duzu. Zein sentazio pizten dizkizu Illunbeko plazak?

Lehen finalean txiki sentazioa izan nuen. Hasi berria nintzen plazan eta Illunbeko handitasunean oso txiki sentitu

nintzen. Eta uste dut matxinatu egin nintzela handitasun horren kontra. Illunbek errebeldia sentazio bat sortzen dit horregatik; plazak presentzia handia hartzen du, buelta guztian gainera, eta barruan dugunak eta kantatzen dugunak garrantzi handiagoa duela aldarrikatzeko behar bat sortzen da. Duela zortzi urte, handitasuna gogoratzen dut. Eta duela lau urte, hotza. Hotza zentzu guztietan, hotz fisikoa eta

baita hotz mentala ere, nire buruarekin oso hotz nengoela sentitu nuelako.

Askotan nabarmendu izan da nola hazten zaren oholtzara igotzean. Iruditzen zait oholtza azpikoan ere hazi egin zarela. Bai, nik ere hori uste dut, baina prozesua pertsona guztiek egiten dutenaren alderantzizkoa izan dela uste dut. Jendeak ahots propioa izaten du oholtzara igotzen denerako eta ni ahotsa

hartzen joan naiz oholtzan bertan nengoela. Uste dut jendeak oholtza gainean hazten ikusi nauela. Anaia eta biok oso umetatik aritu gara bertsotan eta hazte prozesu hori gure kasuan publikoa izan dela uste dut. Eta, gero, publiko horretatik jaitsi eta gure baitara bildu gara, eta zer egin nahi dugun hausnartu dugu. Nik sentitzen dut ahotsa badudala orain, eta ez oholtzan bakarrik, munduan ere kokatuago nagoela sentitzen dut.

Donostiarra zarela aldarrikatu duzu finaleko prentsaurrekoan.

Donostiako komunitate zabal batentzat Xalbadorri txistu jo zioteneko finala edo Illunbeko finalak ez dira existitzen. Añorgatar kontzientziarekin etorri nintzen 2007. urtean, baina pixkanaka egokitu zaigu donostiartasun puntu bat hartzea. Donostian bada jendea euskaraz bizi dena, euskaraz gozatzen duena, bertso saioetara joaten dena... uste dut jende horrek merezi duela. Gero eta oxigeno gehiago hartzen ari da euskara hirian, baina amorrua ere ematen du beti justifikatzen aritu beharra. Illunbekoa festa bat da, baina ez da festa bat bakarrik; gure biziraupena jokoan dago eta badu aldarrikapen kutsua.

Prestaketan bakarkako lan handia egiten duzu. Aurten Hernaniko bertso eskolara ere gerturatu zara.

Txapelketa bakoitza desberdin prestatzen dut, baina egia da lan asko egiten dudala nire buruarekin. Aurten anaiarekin asko aritu naiz. Bera lehen aldiz finalerdietaraino iritsi da eta bidearen zati handi bat elkarrekin egin dugu. Horrek oso berezia egin du txapelketa hau eta karga dezente kendu dit.

Hernaniko bertso eskolara ere gerturatu naiz, Unai [Agirre] eta Aginekin [Laburu]; erantzuteko prestutasuna, beren euskararen freskotasuna eta jariotasuna... hori guztia jasotzen dut haiekin. Berez badut nire baitara biltzeko joera eta laguntzen didate kontrapuntua jartzen.

Amagoia Mujika Telleria

Txapelketa lehen urratsetik ibili du, pauso deserosoz batzuetan eta gailurrak marraztuz tarteka. «Zerotik» eta «zero azpitik» abiatu dela sentitzen du, eta, horri esker, porrotari beldurra galdu dio. Bere tokia topatu ezinda osatu du txapelketa, baina, aldean daramatzan finalen eskarmentuarekin, Illunben etxean bezala senti daiteke.

Azkenean, Illunbe. Bidea amesgaizto bihurtu al zaizu tarteka?

Euskal Herriko txapelketatik era eskas horretan kanpoan geratu nintzenean, ez nekien inoiz berriz bueltatuko ote nintzen txapelketa batera. Zona zero horretatik abiatu nintzen eta erabaki nuen Gipuzkoakoan parte hartzea, nire baitan palanka efektua egingo zuen zerbait behar nuelako, egoerari buelta emateko zerbait. Era berean, Euskal Herrikoa era horretara ez bukatzeko saiakera ere egin nahi nuen, eta derrigorrezko bidea zen Gipuzkoakoa.

Bi arrazoi horiei helduta hasi nintzen, autokonfiantza nahikoa ukituta. Txapelketa hau izan da txapelketetan nire autokonfiantza berreskuratzeko bide bat. Gainera, hainbeste urtean Euskal Herriko finaletan kantatuta perspektiba galtzen da, eta honek behartu nau, denok bezala, bide luze hau egitera. Zerotik ekin diot, gauza batzuetan baita zero azpitik ere. Urte osoko lana izan da, eta, orain, oso pozik nago nire buruarekin, nahiz eta bidea oso baldintza berezietan egin dudana.

Toki deserosotik aritu zara.

Bai, eta ez inork toki deserosoan jarri nauelako. Nik erabaki nuen parte hartzea eta baldintzak berdinak dira denentzat. Txapelketa honetan nagusi diren bi belaunaldietatik kanpo nago, ez bertsolarien artean bakarrik, baita zaleen artean ere. Gainera, nik nire beldurrei aurre egin behar izan diet. Hernaniko nire lehen saioa oso trago txarra



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

JON MAIA SORIA

ZUMAIA, 1972

«Immunitate sentsazioa galdu egin dut eta ez diot beldurrik porrotari»

bezala gogoratzen dut; igande goizez, areto erdi huts batean... Gogoratzen naiz nola joan nintzen bezperan gaizki pasata, baita goiz hartan bertan ere. Une batean eskolartekoan izaten nituen sentsazioak piztu zitzaizkidan...

Txapelketako bidea terapia bat izan dela esan duzu.

Bai, aurre egin behar izan diet zalantzei, beldurrei, galdutako konfiantzari, eremu eta bertsokide berriekin funtzionatzeari... Nire bertsolari bidea, egia esan, erronka etengabeko bat izan da,

gaztetxotatik. Nire unibertso kulturaletik eta nirea bezalako etxe batetik zetorren bertsolaria nintzen hasiera hartan eta etengabe nire burua gainditzten aritu behar izan dut. Hala ere, ez nuen espero bertso ibilbideak trantze honetan jarriko ninduenik, nire mugak gainditzeko ariketa honen aurrean jarriko ninduenik. Kasu honetan muga horiek ez dira goitik izan, behetik baizik. Azpi-azpitik hastea izan da erronka eta nire burua gainditzeko prozesua. Behin lortu dudala, sekulako garaipena bezala bizi dut. Bidean pentsatu izan dut

«Ez nuen espero bertso ibilbideak trantze honetan jarriko ninduenik, nire mugak gainditzeko ariketa honen aurrean. Kasu honetan muga horiek ez dira goitik izan, behetik baizik. Azpi-azpitik hastea izan da erronka. Baina orain, oso pozik nago»

orduko baldintzak errepikatzen, baina ez dut hain sentsazio onik lortu. Saio bakoitzak sentsazio desberdinak utzi dizkit, baina pozik nago guztietan lortu dudalako aurretik txapelketetan ukitu gabeko gailurrak ukitzea; Zestoan ofizioka, Beasainen bakarkakoa... Orain lortu nahi dut pieza solte horiek saio bakarrean biltzea, Illunben esaterako.

Noizkoa da zure azken txapela?

Eibarren kartzelakoan aipatu nuen: Xenpelar sarikoa izango da, 17-18 urteren bueltan, bi urtetan jarraian jantzi nuen.

Ondo legoke Gipuzkoakoa, ezta?

Poza emango lidake. Txapelaren bueltan ibili naiz txapelketa askotan, ez naiz inoiz oso urrun geratu, batzuetan hurbil samar ere bai. Ez dakit muga psikologikoren bat ote daukadan txapelarekin... Aurtengoa hain txapelketa berezia izanik, agian baldintza egokiak eman daitezke nik nahi dudana finala egiteko. Egin behar izan dudana ibilbide luzeak sakontasun bat ematen dio. Sentsazio asko piztu zaizkit txapelketa honetan, baita 1997ko Euskal Herriko Txapelketako nire lehen finala ere. Pentsa, ordezko hasi nintzen txapelketa horretan eta finalera ailegatu nintzen.

Porrotari ez omen diozu beldurrik.

Ez, penitentzia modukoa pasatu dudalako. Probatu dut disgustua, porrota, zerotik hastea... Bertso ibilbidean une batean txapelketetan goi samarrean sentitzen zara eta immunitate sentsazio bat sartzen zaizu. Galdu egin dut immunitate hori, bat gehiago sentitzen naiz, eta, Euskal Herrikoan hartu nuen kolpearen ondoren, ez dut handiagoa hartuko.

Porrotari beldurra galdu diot. Porrota, hala ere, oso gauza pertsonala da. Baina, zentzu horretan, oso liberatuta sentitzen naiz finalari begira; ez dut obligaziorik sentitzen, libre sentitzen naiz.

«zer egiten dut hemen?», «zer behar daukat?». Baina orain, oso pozik nago.

Plazan oso goitik zabilta.

Txapelketan, oso lotuta.

Txapelketetan beti estutzen naiz asko, baita fisikoki ere. Txapelketa honetan sekulako poza eman dit Zizurkilen egin nuen saioak. Lasai, fresko eta gustura aritu nintzen. Ez dut uste inoiz hain ondo kantatu dudarik txapelketa batean. Baldintza oso berezietan aritu nintzen, bezperan Bartzelonan egona nintzen Athleticen finala ikusten... Gerora saiatu naiz

Maider Iantzi Goienetxe

Patxadaz eta alai mintzatzen da Unai Agirre. Agian esperientziagatik izanen da; «lasai, oso lasai nago», aitortu digu Illunbeko harmailetan jarrita. Astebeteren faltan, ez zitzaion iruditzen finala bazetorrenik ere. «Aurreko finaletan beste kezka bat eduki nuen, baina oraingoan ez. Agian nire buruari ere ez diot uzten jada neurritz kanpoko garrantzirik ematen. Eguna inguratu heinean zentratuko naiz eta saiatuko naiz erabat kontzentratzen. Urduritasun puntu bat ere inportantea izaten da», diosku.

Zer moduz joan zen Tolosako finalaurrekoa?

Finalaurrekoetara denok alerta piztuta joan garela uste dut, nahiko ariketa zailak ziren-eta, bertsotan egiteko ez oso erosoak. Tolosan zortea izan genuen saioa goitik hasi zela, denak ere nahiko ondo hasi ginela eta eutsi egin geniola tentsio horri. Uste dut orokorrean sentsazio onak eduki genituela. Txapelketako saioetan ez da beti horrela izaten. Baina Tolosakoak bazituen, final honek dituen bezalaxe, zenbait gauza hori ahalbidetu zutenak. Bat, giro izugarri ona zegoen; bi, gaiak ere kantatzeko modukoak ziren; eta, hiru, taula gainean jende berria, esperientziakoa, denetarik zegoen pixka bat.

Finalak aniztasunaren faktorea betetzen du eta giroarena ere seguru.

Bai. Gero askotan faktore txikiek eragiten dituzte mugimendu handiak. Orduan, bertsotan ari garenok sekula ez dugu jakiten nola aterako den, hau bat-batean da, inprobisatua da, eta kezka hori izaten da. Horrek ere egiten du bertsoa berezi, baina nahi genuke saio on bat izatea.

Taldean esperientzia handiena duenetakoa zara.

Adinez Jon izango da zaharrena. Nik 40 urte ditut eta txapelketa askotan parte hartu izan dut. Badaude, nahiz eta gazteagoak izan, esperientzia handia

«*Faktore txikiek eragiten dituzte mugimendu handiak. Ez dugu jakiten nola aterako den, hau bat-batean da, inprobisatua da, eta kezka hori izaten da. Horrek ere egiten du bertsoa berezi*»



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

UNAI AGIRRE GOIA

HERNANI, 1975

«Gustura nago inoiz utzi ez dudan afizio bat berrartu dudalako»

dutenak, Beñat bera, Agin bera... Berriak ere bai. Esperientziak erakusten dizuna da saioa erlatibizatzen, gauzak ahal dela ondo egiten. Baina horrek ez dizu inondik inora garantiarik ematen ondo egiteko. Askotan freskotasunak ere balio du.

Euskal Herriko txapelketan ia-ia finalean sartu zinen. Hor zabilta, puntan.

Bai, orduan oso ondo hartu nuen. Banekien oso zaila neukala eta azkenean hor ibiltzea da garrantzitsuena. Berdinketa izan zen eta [Aitor] Sarriegiri tokatu zitzaion joatea, baina ni joan izan banintz bera geratuko zen kanpoan eta berdin izango zen

injustua; orduan garrantzitsuena bertsotan bakoitzak dakiena egitea da, eta emaitza izan dadila ondorio bat. Dakidana egiten badut lasai gelditzen naiz.

Nola bizi duzu bertsolaritza?

Niretzat afizio bat da. Ume-umetatik honetan nabil. Gainera, fase guztiak pasa izan ditut, ibiltzetik ia uzteraino. Adin batzuetan plazak eta txapelketek ematen dizkizute uste ez dituzun disgustu batzuk ere, eta garai bat eduki nuen erabat utzi nahi nuena. Gazteago den bertso eskolako jendea tira eta tira izanik, babes horretan berriro animatu eta berriro txapelketetan hasi nintzen. Alde

horretatik, Hernanin zorte handia daukagu: bertso eskola handia gara eta bertsolari asko gaude. Azkenaldian, gainera, gauzak nahiko borobil atera zaizkit eta berriz ere plazan pixka bat banabil; oso gustura nabil, denetarik izaten da, saio txarra egiten duzunean ez baita izaten gauza atsegina, baina gustura nago inoiz utzi ez dudan afizio bat berrartu dudalako.

Kantaera berezia duzu. Ahalegina egiten duzu horretan ere?

Nik uste gauzak berezi egiten direla gutxi gelditzen diren garaietan. Nire kantaera bezalakoa dutenak orain agian ez

dira asko gelditzen plazan. Garai batean beharbada gehiago egongo ziren. Nik beti antzera kantatu dut. Egia da horri garrantzia ematen diodala: kantatzeari, doinuei, leku bakoitzean kantaera egokia aukeratzeari, entzun ere asko egiten dut besteek nola kantatzen duten... beti gustatu izan zait. Eta azkenaldian garrantzi gehixeago ematen saiatu gara, ez ni bakarrik, bertso eskolan ere bai, eta jendeak estimatzen du. Guretzako ere aliziente bat da.

Nola igaroko duzu finalaren eguna?

Finala lortzea oso polita izaten da, baina eguna bera ez da batere atsegina izaten niretzat. Goizean jaiki eta ez dakizu ondo zer egin. Lo egiten saiatzen zara baina goiz esnatzen zara; gero buelta bat ematera ateratzen zara baina buelta handiegia ere ez duzu eman nahi gero nekatur egon zaitezkeelako; siesta egitea pentsatzen duzu baina ez duzu egiten ez duzulako behin ere egiten eta gero tontotuta jaikiko zarelako; hori bai, aldi berean deskantsatu ere egin nahi duzu... Normalean nire buruarekin hitz egiteko aprobeztatzen dut, bestela hartzen ez dudan denbora egun horretan hartu egiten dut eta kontzentratzen saiatzen naiz, buelta bat eman, bakarrik etorri, edo bertsolari batekin, eta lasai egoten saiatu. Hori da txarrena, hasi artekoa. Behin hasita, ja listo. Lanean zaude eta buruak beste era batera funtzionatu behar du.

Bertzeak kantatzen ari diren bitartean, jarrita zaudenean, zer izaten duzu buruan?

Denetik. Entzuten eta pentsatzen egoten gara: «Honi zer kantatuko nioke nik?». Momentu batzuetan, adibidez ofizio bat aurrena bukatu baduzu eta beste hiru itxoin behar badituzu, konturatzen zara erabat aldendu zarela; txarra izaten da oso urruti joatea, berriz zentratu behar baita. Ondo ari bazara saioa segitu nahian ibiltzen zara, eta, gaizki ari bazara, saioan sartu eta kontzentratu nahian. Hor atzean gauza asko gertatzen dira.

«Kantatu nahiko nuke astez aste. Nire ahots hori bilatu nahi dut»

OIHANA IGUARAN BARANDIARAN

VILLABONA-AMASA, 1991

Maidar lantzi Goienetxe

Villabonako 24 urteko gaztea berria da finalean, baita txapelketa honetan ere. Ez hori bakarrik: lehenbizikoz sartu da Illunbe zezen plazara. Diskurtso interesgarria du, bertsoetan bezala, ideia argiekin.

Ze sentsazio izan zenituen Tolosako finalaurrekoan kantatzean eta ze asmorekin zoaz finalera?

Lehenengoz iritsi nintzen finalaurreko batera eta oso momentu polita izan zen. Ilusio askorekin iritsi nintzen eta kezka neukan halako plaza handia izanda eta nik halako barruko zurrunbiloa edukita jakingo ote nuen zentratzen. Erronka hori izan zen eta finalean uste dut askoz handiagoa izango dela. Baina nire asmoa berdina da, ilusioz etortzea, jendearekin kontaktatzen saiatzea eta esan nahi dudan horretan asmatzea. Teknikoki zortzikote hau oso potentea da; nik oraindik asko daukat lantzeko, orduan saiatuko naiz nire gaztetasunetik beste ahots bat ematen, beste kolore bat. Esateko zerbait ezberdina badaukadala uste dut.

Freskotasuna emanen diozu saioari.

Ahalegina hortik doa. Oraindik estiloa asko definitzeko daukat, baina uste dut ezberdina izan daitekeela eta publikoarekin kontaktatzeko balio izan didala. Tolosan hala sentitu nuen eta horixe sentitu nahi dut Illunben.

Umoretsu ere ibili zinen.

Oso garbi eduki nuen hortik jo behar nuela. Iruditu zitzaidan publikoak eskertzen zuela eta heriotzaren gaiaren aurrean bide hori hartu nuen, Unaik [Agirre] ere segituan heldu zion. Haurdunaldiaren gaian ere, biktima paperean sartzen ari ginela ikusi nuenean, erabaki nuen haurdun egonagatik jenio

txarra izan eta aktibo izan zaitezkeela.

Publikoak bereziki txalotzen zintuela sentitu zenuen?

Konturatu nintzena da umorea saritzen zuela; seiko motzean bereziki sentitu nuen, bixitasun hori harrapatu genuenean, asko txalotu gintuzten.

Ze sentipen izan dituzu Illunben sartzean?

Lehenengo aldiz sartu naiz. Duela lau urteko finalean kanpoan nintzen, ikasketekin, eta Internet bidez ikusi nuen. Inpresio dexente egiten duen

lekua da, eta, era berean, oso bildua, oso goxoa ematen du. Atsegina izango da kantatzeko, baina zentratzeko erronka handia eskatuko dit.

Maiatzean txapelketa hasi zenuenetik finalera bitarteko bidea luze egin zaizu?

Tentsioa luze doa. Arituz taldetik [Tolosaldeko bertsozale taldea] zortzi lagun atera ginen bertso eskola beretik. Sailkapen fasean bi saio ziren, hura seik gaintitu genuen, eta gero saioz saio joan gara. Finalaurrekoetara hiru iritsi ginen eta gero ni. Oso pribilegiatua sentitzen naiz. Oso

jende ona kanpoan geratu da eta zor diogu saio polit bat osatzea. Talde bezala, tentsio konpartitu bat ere izan da, kantatzen ez nuen saioetan ere besteengatik izan dut bultzatzeko grina hori, eta oso polita baina oso intentsoa izan da.

Kanpoan gelditu diren gazteen ordezkari sentitzen zara?

Ez dut sentitu nahi ordezkari, bai nahi dut saio on bat egin, zerbait ona eskaini. Jakitun naiz oso jende ona dagoela eta espero dudan gauza bakarra da gero plazan lekua izatea denok eta hor elkartzea.

Noiz eta nolatan hasi zinen bertsoetan? Ze bide egin duzu?

10-11 urterekin hasi nintzen bertso eskolan Amaia Agirrerekin, Villabonan bertan. Hasieran taldetxo bat geneukan, aurrera egin ahala desegiten joan zena. Baina Amaiak beti heldu gintuen gogoa geneukanok eta bertso eskola batetik bestera eraman gintuen, eta gaur da eguna non berekin ibilitakoak gehi Tolosaldeko bertsolariak elkartu garen eta gure talde propioa osatu dugun [Arituz]. Eskolartekoetan izena eman izan dut, gazte sariketa batzuetan ere abestu izan dut; ez dut bereziki ibilbide arrakastatsua egin, alegia, ez naiz ezaguna, jakitun naiz. Baina uste dut bide polit bat egiten ari garela bertso eskolan, bereziki azken urtean salto polita eman dugu gora, eta, era berean, uste dut oraindik asko daukagula egiteko. Ilusio horrekin gaude.

Nola joan zara txapelketa prestatzen?

Ariketak dexente aldatzen joan dira saioz saio. Neurritz aldatzen joan dira. Bertso eskolan egin duguna saio bakoitza prestatzea izan da. Gainontzean bakoitza gure estiloa bilatzen eta hobetzen saiatu gara.

Zer eskatzen diozu bertsolaritzari?

Argiago daukat zer eman nahi diodan. Txapelketan izena eman nuen plazetan abestu nahi dudalako. Kantatu nahiko nuke astez aste; ez dakit berria den esateko daukadana baina esateko gogoa daukat, nire ahots hori bilatu nahi dut. Uste dut beste kolore bat izan naitekeela eta momentuz bertsolaritzak eman didana da aukera izugarria. Jaso dudan hori guztia bueltan ematen baldin badut finalean, izugarria izango da. Horretara etorriko gara.



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Maidar Iantzi Goienetxe

Agin Laburu oroitzapenek hartu dute zezen plazan barneratu denean, orain dela lau urtekoek. Eta, jada elkarrizketaren hasieratik irribarrea marraztuz gaineratu duenez, txikiagoa imajinatzen zuen, memorian txikiagoa egin zuen. «Orain berriz begiratu dut gora eta esan dut ‘bastanteko handia da’, baina duela lau urte ez bezala, uste dut egoera kontrolatzeko kapaz izango naizela. Orduan egoerak jan egin ninduen. Gogoan daukat taula gainean bertan txiki sentitzen nintzela, oso txiki; ‘zer ari naiz ni hemen?’ sentsazio hori nuen, nirea ez zen leku batean nengoen sentsazioa. Aurten ez. Pentsatzen dut hori dena janda, irentsita daukadala».

Heldutasuna, esperientzia...

Bai, txapelketa hark plaza batzuk egiteko aukera eman zidan eta uste dut nire burua askoz hobeto ezagutzen dudala eta beste gorputzaldi batekin igoko naizela oholtzara.

Halere, estiloari eusten diozu: umoretsu, bide berriak bilatuz...

Ez dakit bestela egiten, e! Agian bada hautu bat, baina ez da kontzientea. Hala egiten dut eta honekin noa azkeneraino. Estilo guztiek balio dute txapelketan ere, pasatzen dena da estilo horri punta atera behar diozula. Ateratzen badiozu, iristen zara.

Zarauzko finalaurrekoa hagitx ongi joan zitzaizun. Kartzelan korapilatu zinen.

Kartzelan etorri zitzaidan biderik ebidenteena aitona edo amona hiltzea izango zen, baina ez nuen nahi, eta beste bide baten bila hasi nintzen. Agobiatzen ari nintzen ez zitzaidalako bide garbirik etortzen eta amatasun bajari kantatzea erabaki nuen, baina eman nahi nuen kurba konplikatuegia zen bat-batean egiteko. Alegia, eman nahi nion tonua gai horri bat-batean ematea oso zaila zen eta geratu zitzaidan eman nahi ez nion tonu batean. Inprobisazioak askotan eramaten zaitu nahi ez



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

AGIN LABURU REZOLA

ASTIGARRAGA, 1985

«Arriskatzera joango naiz, ahalik eta ikuskizunik onena ematera»

duzuna esatera ere, errima batek bestea ekartzen dizu, josi nahian zoaz eta ez nuen ondo josi. Geroztik gogoeta egin dut zer egin nahi nuen eta zer egin nuen, eta, esan dut: «Ostras, Agin, ez haiz hain ona!». Sinpleago egiten saiatuko naiz.

Bestela ongi aritu zinen, ezta?

Oso gustura. Arriskatzera joan nintzen; gauza batzuk ondo atera zitzaizkidan, besteak ez hain ondo, eta finalean ere arriskatzera joango naiz. Ondo pasatzera. Zortzi mila ikusle egongo dira eta horiei ondo pasarazi behar zaie. Ezin dugu meza bat eman; ikuskizun bat eskaini behar zaie eta saiatuko naiz ahal dudan ikuskizunik onena ematen.

Nola pasatuko dituzu final aurreko egunak?

Ez dut ezer berezirik egitea pentsatzen. Nahiko lan badaukat, etxean lau hilabeteko ume bat ere bai, eta nahiko okupatuta pasatuko ditut egunak. Tarteka bertsotan elkartuko gara,

«Estilo guztiek balio dute txapelketan ere, pasatzen dena da estilo horri punta atera behar diozula. Ateratzen badiozu, iristen zara»

normalean Unai [Agirre] eta [Aitor] Mendiluzerekin biltzen naiz, eta Beñat [Gaztelumendi] ere etortzen da batzuetan. Baina azken astean sartuta miraririk ezin da egin. Azterketarako bezperan ikasteak ez du balio izaten.

Lasai dirudizu...

Bai, oso lasai nago. Duela lau urte akojonatuta nengoen; aurten, berriz, ondo ateratzen bada primeran, eta, ez bada ondo ateratzen, ez da ezer pasatzen. Lau urteotan erlatibizatzen ikasi dudala uste dut, eta, umea jaio denetik, gehiago. Nire bizitzan ardatz inportantea da bertsoa, baina ez nagusia. Plazarik gabe ere biziko naiz. Segitu nahi dut mundutxo honetan, baina noizbait bukatuko da eta nire mundua ez da horregatik eroriko.

Txapelketa plazan segitzeko bidea da zuretzat?

Bai, kreditu batzuk. Aparte txapelketa gustatzen zait, e! Ondo pasatzen dut. Momentuan

bertan ez, baina biltzen, entrenatzen, ikasi egiten duzu asko. Baina txapelketak ez balu egingo erakustoki funtzio hori, segur aski asko ez ginatke aurkeztuko. Gure maila daukaten bertsolariak asko izanda, ez bazara txapelketan gora iristen zaila da plazan ibiltzea. Honek aukera ematen dizu merkatu horretan segitzeko.

Lehia maite duzu?

Ez dut erabateko lehia bezala bizi. Batzuetan batek irabazten du, besteetan besteak, eta ondo, gero komentatu, jiji-jaja, afaltzera joan... Ekipo sentsazioa hor dago. Txapela Unai [Agirre] irabaziko balu, esate baterako, nik irabaziko banu bezala poztuko nintzateke. Beste edozeinek irabaziko balu ere poztuko nintzateke. Min ere hartzen duzu; Urretxun [Jexux Mari] Irazu erori zenean nik saioa irabazi nuen eta ez nengoen pozik, banekielako zer gertatu zen. Parte onak eta txarrak dauzka. Nik ondo pasatzen dut. Oraindik urte batzuetarako txapelketak badauzkadala uste dut, erortzen naizen arte.

Nola pasatuko duzu finalaren eguna?

Umeari pixoihala aldatu... [barrez]. Normalean arrebak prestatzen dizkit bazkariak bertso saioak dauzkanean. Gero familiarekin egon eta gustatzen zait bertso eskolako lagunekin ere elkartzea; hori bai, saioa entxufatzen hasten naizenean familia agurtu eta bukatu arte bertsotara egoten naiz.

Lagunekin beti?

Bakarrik egotea ez zait gehiegi gustatzen. Ekipokoa naiz denean.

Zerbait erantsi nahi duzu?

Bai, inportanteena bertsoa dela. Ahal dugun heinean pertsona bezala hobetzea bertsotan, bertsotan egitea eta ez jendea gehiegi aspertzea. Txapelketak batzuetan kontserbadore bihurtzen gaitu eta finala bada momentu bat hori puskatu eta libre kantatzeko.

IÑAKI APALATEGI ASTIGARRAGA

BEASAIN, 1982

Maidar lantzi Goienetxe

Iñaki Apalategik oroitzapen gozoak ditu orain dela lau urteko finaletik eta orduko sentsazio aunitz etorri zaizkio plaza berezi honetan. «Oso gozagarri da, final hura gogoratzen baitut ez soilik egun polit bat bezala, baizik eta hamabostaldi edo hilabete polit bat bezala. Oso goxoa izan zen, etxeko girokoa, bai zortzion artean eta bai nork bere etxean, eta gauza horiek errepikatuko dituzula jakiteak poz handia ematen du».

Bertsolarien artean batasun handia sortuko da...

Bai, gero bazkaltzera joaten gara gaurko egunez [aurkezpen egunean]. Mahaian zaila izaten da denekin egotea, baina bai sortzen dela harreman berezi bat. Lehen esan dizudan goxotasunarekin lotuta, egun bereziak dira orain datozen Gabonak, maite dituzunekin egoteko... sentimendu hori pixka bat indartu egiten da.

Nola ikusten duzu zure burua finalaren atarian?

Gustura nago bilakaera bat ikusten dudalako txapelketa hasi zenetik, ez estiloan baizik eta mailan. Final laurdenetatik finalerdietara aurrerapauso bat edo bi egin nituen, oraindik finalean ez dut kantatu baina prestaketetan ikusi dut beste buelta bat eman diodala torloju horri, pixka bat estutu naizela. Horrekin oso gustura nago eta erakusteko gogoz.

Nola lortu duzu hobekuntza hori?

Nik uste asko mentala dela, zure buruari zer eskatzen diozun. Nahi eta nahi ez zure buruak pentsatzen du momenturen batean: «orain egin beharra dago, dena eman beharra dago». Ez dut esan nahi aurreko faseetan nahita ez duzunik dena ematen, baina inkontzienteki erlaxatuago zoaz, eta, gerora ere, aztertzen dituzunean saio batean egin dituzun gauzak, badakizu zeintzuk errepikatu nahi dituzun eta zeintzuk ez.

Beti hobetuz zoaz. Eta, horri lotuta, aurtengo saioak aztertu ditut, orain lau urteko finala ere bai. Orduan laugarren izan nintzen. Oso sentsazio onak, oroitzapen politak dauzkat, badakit zaila dela errepikatzen, baina, behin hori eginda, hobetzeko gorago begira jarri beharra dagoela uste dut, kontziente izanda edozein gauza etor daitekeela. Norberak, hemen dagoen momentutik,

bere burua hautagai ikusi behar du eta horri begira prestatzen naiz ni ere. Oso jakitun naiz norbaitek egingo duela zortzigarren, zazpigarren... Eta pauso hori atzeraka izan daitekeela, baina mailan gora egin nahiko nuke; uste dut gai naizela, duela lau urte baino bertsolari hobea naizela.

Teknika ona erakustearekin batera jendearengana ailegatu



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

«Oso gozagarri da, final hura gogoratzen baitut ez soilik egun polit bat bezala, baizik eta hamabostaldi edo hilabete polit bat bezala. Oso goxoa izan zen»

Hori nola egin?

Kontuan eduki behar duzu denboraren presiopean ari garela, batzuetan ideiak etortzen zaizkigula baina borobilenak eseritakoan etortzen direla. Oso ondo dago zuk zer egin nahi duzun jakitea, baina gero, lau eskaileratxo horiek igo, eta egin egin behar da. Helburu bezala hartu dut Tolosakoak bezain onak izatea baina final laurdenetan bezala iristea jendearengana. Hori izango litzateke apogeo. Agurretik hasita denaren bila doanaren jarrerarekin joan nahi dut, jendearekin sintonia horretan konektatu. Gero ikusiko dugu, e!

Nola prestatuko duzu finala?

Orain arte bezala. Ariketa batzuk egiteko elkartuko naiz zenbait jenderekin, gustatzen zait hor nire burua pixka bat estutzea, zerbait gehiago edo hobeto egiten saiatzea. Eta azkeneko egunak lasai biziko ditut. Finalaren goizean paseo bat emango dut segur aski, garaiz bazkaldu, gorputzak eskatzen didanaren arabera siestatxo bat egin, eta, gero, gustatzen zait kotxez buelta bat eginda etortzea, bakarrik, musika jarri eta zentratzea. Norberak edukitzen ditu finalerako eta orokorrean txapelketako saio baterako bizpahiru premisa: «Honetan zentratu behar duzu: jarrera, errimategia...». Gehiegi edukitzea ere ez da komeni, nahastu egiten zarelako. Bizpahiru premisa horietan zentratuko naiz musika bidez, eta gero dena ematera. Gaurko egunez, edo saskibaloï partida batera etorritz, lekura pixka bat egokitu, eta egunean bertan oholtzara igo, mikrofono aurrean jarri, beteta imajinatu, zure burua ondo kantatzen irudikatu... Gertatuko dena irudikatu, bai zure burua oso gustura gelditzen eta bai hain konforme ez gelditzen eta horri buelta ematen.

nahiko zenukeela esan duzu.

Final laurdenean, fase osoko lanik puntuatuena egin nuen bakarka eta jendearengana asko iritsi zen. Finalerdian, aldiz, bertsoak ez ziren hainbeste iritsi. Hobekuntza horretan pentsatzen duzu: «bertso onak bota behar badituzu zer hoberik, gainera, jendearengana iritsi eta beraiek ere gogora ditzaten baino». Horretan ahaleginduko naiz.



Gaizka Amondarain
Irakaslea

Edo zein erok ez?

Nik, nire izenean hitz egiteko eskatzen badidazue, zera nahiko nuke horrelako egunen batean: etxetik irten eta poliziak kale bueltan geratzea, eta haiek emandako agindu bakoitzari aurpegiarik aldatu gabe ezetz esatea. Gustatuko litzaidake ikustea nola jartzen diren uniformedun agenteak gero eta urduriago, nola egiten didaten mehatxu zer egin ez dakitela. Azken batean, eta sakon-sakonean, armak kendu eta bertan garbituko nituzke, gustura. Eta are ederragoa litzateke jende askok ikusiko balu, eta inor beldurtuko ez balitz, txalo artean esango balidate: «ederto egin duk mutil, aspalditik merezi zuten. Eta orain mugi ipurdia eta hoa hemendik». Eta nik, abagunea aprobetxatuz, lasterka egiteari ekingo nioke. Hiritik atera aurretik, hala ere, banketxe batean sartuko nintzateke, diru guztia lapurtzeko, eta bankuko baten bat ni geldiarazten saiatuko balitz, hura ere akabatu egingo nuke. Bezeroei entzuteko esaten gero: «ondo egina gazte, geuk egin behar genian lehenago, benga, hoa denborarik galdu gabe». Eta ni poltsa diruz gainezka dudala teilatuz teilatu saltoka, baina, kasu!, aurrez Senatuan edo Kongresuan edo Parlamentu madarikatuan sartu beharra daukat, berdin dit non egia esan, baina hori bai, tiroka sartuko nintzateke, Jainkoa madarikatuz, gaizto aurpegia ipinita. Eta behin barruan nagoela, mugitzen den politiko bakoitzari, pum! pum! eta pum!, eta jendeak ole! ole! eta ole!, besoetan eramango nindukete plazara, eta ama guztiak han beraien haurrekin argazki bat ateratzeko erregutzen. Eta hara!, ze kasualitatea, Justizia Jauregia bertan, banoa epaile pare bat garbitzera, zergatik ez? Hauek, ordea, ez ditut tiroka hilko, ezta pentsatu ere, hauek ostiaka akabatuko ditut, justizia jainkotiarraren izenean. Jendea, ordurako, pozez zorratzen: «hor doa gure justiziagilea» aldarrika, «aurrera, segi korrika». Eta zer dakit nik, bide batez, sobera ere ezagutzen ditudan pare bat multinazionalen bulegoetan sartu, eta espekulatu gabe, noski, to! to! eta to!, handik ez litzateke inor bizirik ate-

rako. Eta banku handi hauetako bateko presidentea bahitu metro batzuk harago, eta sufriarazi, eta torturatu, eta gero, eskopeta atera eta buru parean jarrita, pum!, azkenik libre, eta biluzik. Eta mundu guztia inguruan, esanaz bezala: «gizagai-xoa... erotuta dago, baina zein maitagarria den».

Albert Pla kantari eta aktore katalanak –«Murieron por encima de sus posibilidades» filmeko eszena honetan– esandakoek gogorarazten digute gaurkoa bezalako hausnarke-ta egun batean, ez dagoela eroarena –edo haurrarena– adinako koherentziarik munduan. Deitu zintzotasuna nahi baduzue. Nire izenean horrelako zerbait pentsatzea posible delako berez, baina, egunkari batean idaztea beste kontu bat litzateke. Kasu horretan, pentsatzen dugunaren gainetik esan ahal duguna dago, beste koherentzia mota bat, norbaitek non-baitetik ezarri eta betazalik itxi gabe geure egiten duguna. Horregatik kokatzen dira eroak gizartetik kanpo eta horregatik dira gero eta aspergarriagoak diskurtso politiko gehienak –ze-

resanik ez hauteskunde sa-soian–, iritzi batzuk ez dire-lako onargarriak normaltasuna ezartzen duen kode etikoarentzat. Baina horrek ez du esan nahi, iritzi horiek existitzen ez direnik, edo norbaitek pentsatzen ez dituenik. Erok ere, inbutua gero eta es-tuagoa den honetan, be-raien koherentzia mantentzen dutelako. Problema dator, psikiatra baten aurrean Albert Plaren antze-ko burutazioak konbentzi-mendu osoz aitortzen ditu-zunean, seigarren alditik aurrera batez ere, zoroetxe batean denboralditxo bat pasatzeko aukerak ugaritu egiten direlako biziki. Parla-mentuan gauza bera eginez gero, honezkero ez dago esan beharrik non bukatuko duzuen, ezta? Eta hor, tama-lez, ez dago libratuko zai-tuen koherentziarik. Horre-gatik ere jarraitu behar dugu botoa ematen, zoroetxeeta-ko biztanleen alde, ahal du-gun guztietan, ezer gutxi al-datuko dela jakinda ere. Hiltzen garen egunean, be-deren, inork ez dezan esan gure ero(so)tasunean kohe-rente izan ez gonienik. •



Gure ero(so)tasunean koherenteak al gara? GAUR8

{ koaderno } Iker Barandiaran

Erlijioak eta frankiziak

Nazkatuta naukate aspaldian erlijio musulmanarekiko gure gizartean ditugun aurreiritzi, beldur eta gorroto guztiek: integrista dela, eskubideen kontrakoa, oldarkorra, erradikala, beste guztiak suntsitu nahi dituen, matxista, jendea hiltzea saritzen duena... Ez naiz ni inongo erlijioaren aldekoa, baina erlijio gehienek teoriatik hartuta behintzat albokoari onena ematea, konpartitzea eta komunitatearen alde egiteko mezua bultzatzen dute. Hala erlijioak kaltegarriak badira ere, horren interpretazioa da arriskutsuena. Demagun kristau apezpikua jendeari kondoirik ez erabiltzeko agintzen, norberaren sexualitatearen eta sexu harremanei buruz askatasuna ukatzen; sinestunak ez direnak sutan erretzen, betiere “beste bizitza batean” zerua irabazteko; meskita bateko burua gazte batzuei esanaz alkohola eta rock-and-rolla deabruarenak direla, zapaltzen dituztenen kontra eztanda eginez zerura joango direla; edo emakumeak ilea motz-motz izatera, edertasunik ez erakustera eta soilik umeen (gero eta gehiago hobeto) zaintzaz arduratzera behartzen dituen errabinoa. Hain zuzen ere, zergatik gero egongo ote denaren ziurtasunik gabe oraingo bizitza sakrifikatu? Ze engainu da hori, oraingo bizitzan norberaren eskubideak ukatu eta guztiari baietz esateko?

Askok miresten dudan pertsona batek orain dela gutxi esan zidan kristaua dela. Adinekoko delako ez nion bi aldiz galdetu, baina harrituta utzi ninduen oso bere esanak. Are gehiago, pertsona horrek bizitzarekiko, gizartearekiko eta beste pertsonarekiko beti izan duen jarrera ikusita. Hautu pertsonala dela argi dut, baina nola babes daitezke gutxi batzuk aberastea, jendea engainatuta (eta ondorioz) zapalduta izatea eta eskubide zein askatasunak murriztea helburua duten erakundeak? Bizkarra eman behar zaie gehiago itxaron gabe.

Horrekin lotuta badakit gure ingurune hurbilagoeneko elizak gero eta hutsago daudela eta errelebo ezer gutxirik dagoela –berdina gertatzen da agerian EAJrekin, baina gero boto asko jasotzen dituzte!-. Hala ere, oraindik ere zergen salbuespena dute eta, ondasunez gain, botere izugarria; hainbeste Espainiako Estatua ez-konfesionala izan arren, ekintza eta ospakizun zibil gehienetan

bere presentzia ohikoa dela –eta tamalez zalantzan ere ez da jartzen-. Are gehiago, gaizki ikusita dago hori zalantzan jartzea eta ez justu kontrakoa, hau da, Eliza Katolikoak halakoetan normaltasunez esku hartu behar izatea. Aldiz, zer gertatuko litzateke halakoetan beste erlijio batzuetako ordezkariak parte hartuko balute? Batek baino gehiagok eskuak burura altxatuko litzuke suminduta.

Eliza Katolikoarekin lotuta –hori baita hemen orain arte bizi eta sufritu izan duguna-, gogoan daukat 90eko hamarkada hasieran Gipuzkoako Gotzaindegiak Bergarako Gaztetxea zena hustu eta ixtera derrigortu zuela. Hori salatzeak apostasia kanpaina gaztetxero bat deitu zen; hau da, bataiatuak izateagatik Eliza Katolikoaren erroldan izanik, bertatik kentzeko eskaera zuzena egitea. Pertseberantzia behar da eta tematia izatea bukaerara heldu eta helburua lortzeko, baina argi eta garbi merezi du egitea. Batez ere errolda horri (eta kopuru horiei) es-

Zergatik gero egongo ote denaren ziurtasunik gabe oraingo bizitza sakrifikatu? Ze engainu da hori, oraingo bizitzan norberaren eskubideak ukatu eta guztiari baietz esateko?

ker diru laguntzak, zerga salbuespenak eta (ageriko) presentzia handiagoa dituelako Eliza Katolikoak; eta, hain zuzen, erakunde pribatu bat bezala tratatzeko ordua delako eta kendu behar zaiolako legitimazioa, besteak beste, herrietan auzolanaz eraikitako hainbat eta hainbat ondasun lapurtzeko.

Zilbor-heste horrekiko apurketan, gauza guztietan bezala inplizituki, zerikusia dauka baita hizkuntzak berak ere. Euskaraz ez horrenbeste –eta frantsesez ez dakit-, baina gaztelaniaz oraindik ere erlijioarekin lotutako dozenaka esamolde erabiltzen ditugu egunerokoan ohar-kabea. Eta judutar nazkagarriei ura ere ez ematearren “urte sabatikoa” nire hiztegitik ezabatu dudan bezala, gaztelaniaz Jainkoari eta erlijio katolikoari zuzenki lotutakoak nire inguruan sinestunak ez direnei behintzat aldarazteko ahaleginean nabil. Hala bedi? •

«OLENTZERO ETA MARI DOMINGI»

Tradizioari errelatoa jartzen dion liburua argitaratu dute Añorga eta Mitxelenak

 **JENDARTEA** / Aimar Etxeberria Korta

«Olentzero eta Mari Domingi» liburua kaleratu berri dute Pello Añorga eta Jokin Mitxelena oiartzuarrek. Lehenarenak dira hitzak, bigarrenarenak marrazkiak. Tradizioaren inguruko errelato berri bat egin dute, kutsu erlijiosoa kontakizunetik at utzi eta Olentzero eta Mari Domingiren mitoak naturarekin gehiago harremanduz.

Ipuinak kontatzen ibiltzeagatik da, batik bat, ezagun Pello Añorga ipuin-kontalari oiartzuarra. Baina ipuinak kontatzen aritzeaz gain, ipuinak idatzi ere egiten ditu. Bere azken lana dela-eta, eta datozkigun egunak aitzakia perfektua izanik, «Olentzero eta Mari Domingi» tituluarekin bataiatu du-

ten kontakizunaren nondik norakoen berri emateko elkartu da GAUR8 Añorgarekin, Lasarte-Oriako kultur etxean. Orain hilabete pasatxo aurkeztu zuen Jokin Mitxelena marrazkigilearekin elkarlanean osatutako lana, Elkar argitaletxearen bitartez argia ikusi duen kontakizuna. Aro zahar baten amaiera eta garai berri ba-


Mari Domingi izaera autonomoa duen figura gisa erakusten dute liburuan. Burukoa jantzi eta suari begiratzen dio, hark esaten baitio zer egin behar duen.
Jokin MITXELENA

ten hasiera gertatu zeneko egun haietan, Olentzerok eta Mari Domingik elkar ezagutu zuteneko istorioa jasotzen du ipuinak.

Hamaika saltsatako parte da Pello Añorga. Horien artean, Olentzeroren iritsiera iragaritzen du urtero Oiartzungo plazan, duela hogeiren bat urtetik hona. Urte horietan guztietan Olentzeroren bilakaeraren zuzeneko testigu izan da, eta, hain izan da bilakaera azpimarragarria, Olentzeroren tradizioaren kontakizunak funtsa galdu dela ere iruditzen zaiola. «Guk, gu-re gaztaroan, ezagutu genuen Olentzero, baina beste modu batera. Geuk egiten genuen Olentzero, ikazkin hura, zerrautsez edo lastoz betez, txorimalo baten modura, bizkarka eramateko ondoren. Baina opariak Errege Magoek ekartzen zizkiguten, ez Olentzerok», azaldu du.

Olentzerok hamarkadaz hamarkada izandako bilakaerari gehitzen zaio azken urte gutxiotan jazotakoa: «Orain dela bost urte inguru zenbait herritan Mari Domingiren figura sartzen hasi ziren, eta Oiartzunera ere iritsi zen moda berri hura. Nik dakidala, Donostian Olentzeroren enbaxadore lanak egiteko erabiltzen zuten Mari Domingi; Olentzero baino astebete lehenago iristen zen, haren etorrera iragartzera». Gaineratu du Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ezagunek Mari Domingiren figura erabili izanak are indar gehiago eman diola pertsonaiari, baina egiten du galdera: «Zein zen Mari Domingi? Zer egiten zuen? Nondik zetorren?».

Añorgak dio badagoela bertsio bat dioena Olentzeroren emaztea dela, edota emakume bezala bere laguntzailea dela dioena. «Hori oso zabalduta dago eskoletan. Eta ordainetan, zer ematen dio Olentzerok? Bada soineko berri bat oparitzen dio», azaldu du. Horrek Mari Domingi pertsonaiaren bueltan polemika sortu duela azpimarratu du, errelato horren arabera Olentzeroren menpeko bezala agertzen delako, «laguntzaile hutsa da. Gainera -jarraitu du- ongi portatzen denez gero soineko berri bat oparitzen dio Olentzerok.



Hori da azken urteotan zabaldu den bertsioa».

Hala, Mari Domingiren inguruko polemika bizi-bizi zegoen garaietan ekin zioten Añorgak eta Mitxelena liburu osatzeari. «Eta lehenengo galdera hori izan zen: sartuko al dugu Mari Domingi kontakizunean? Hasieran ezezkoan nengoen, baina badira zenbait gauza gizartean txertatzen joaten direnak... Orduan, zer egiten duzu horrekin? Azkenean, sartzea erabaki genuen, baina Olentzeroren figura eutsiz eta Mari Domingiri izaera propio bat emanez», adierazi du.

ERRELATOA ERAIKIZ

Hala ekin zion Añorgak kontakizuna idazteari, baina errelatoari dagokionez hutsune handia sumatzen zuela dio: «Zein zen Mari Domingi? Zer ordezkatzaren zuen?». Horregatik, errelato propio bat idazteari ekin zion azkenean: «Pertsonaia bat bultzatu nahi badugu ideia eta fundamentu gehiago izan behar dugu; oso arin ikusten nuen kontua. Olentzero ere... Zergatik banatzen ditu opariak? Gauza asko txertatu dira gure ohitura urte gutxiaren buruan, inertziaz, eta ohitura bilakatu dira. Merkantilismo hutsetik erroto dira, espiritualtasunik gabe».

Egoera horretan, Olentzero eta Mari Domingiren figurei forma ematen ahalegindu da Añorga liburuarekin. «Olentzeroren ezaugarri gehienak bere horretan mantendu ditut: adibidez, hainbat mitoren arabera azken jentila izan zen, eta hori horrela mantendu dut», azaldu du. Ondoren, hodei zaharraren mitoari heldu dio idazleak, alegia, hodei ilun batzuk zerua estali zutela dioen mitoak ematen dio jarraipena errelatoari. Zerua hodeiez estaltzearekin batera eguzkiak indarra galtzen du, baina jentilek ez dakite zergatik den. Horregatik, jentil zaharra jotzen dute. Honi begiak ireki eta adierazten du mundu zaharra amaitu dela, akabo direla. Errelatoaren arabera, jentil guztiek euren buruaz beste egiten dute, Olentzerok izan ezik.

Orduan agertzen da istorioan lehen aldiz Mari Domingi. Den-



Olentzeroren irudi tradizionalari eutsi dioten bezala, Mari Domingi berri bat asmatu behar izan dute liburuaren egileek.

Jokin MITXELENA

bora bat leize batean sartuta igaro ostean, garai berriaren hasiera ikusi nahi duela eta bera-rengana jotzen du Olentzerok. «Suarekin harremana duen per-sona bat bezala agertzen dut Mari Domingi liburuan. Hala, momentu batean, burukoa jarri eta suari begiratzen dio, harik eta honek garai berrira igarotze-ko txondorra piztu behar dutela esaten dion arte», azaldu du Añorgak. Txondorra herritarren laguntzaz egingo dute, eta or-duan argituko da eguzki berria. «Horretarako Juan Kruz Igarabi-de eta Elena Odriozolaren liburu batean inspiratu nintzen, bertan hitz egiten baita eguzki zahar eta berriaz», azaldu du.


HARREMANA, NATURAREKIN

Eguzki berriaren agerpenak sor-tzen dien poza ospatzeko afaria egin dute. Idazlearen arabera, izan dezake zerikusirik afari ho-rrek Gabon gauekoarekin, baina berak neguko solstizioarekin lo-tzea nahiago izan du: «Egun ho-rretatik aurrera eguna luzatzen hasten da, argitasunak protago-nismo gehiago hartzen du, eta opariak orduan agertzen dira: su berriaren, argi berriaren sin-bolo bezala txondorreko maki-lak oparitzen dizkiete haurrei Olentzero eta Mari Domingik».

Erlijio kutsua kendu eta natu-rarekin harremandu nahi izan du, beraz, idazleak Olentzero eta Mari Domingiren mitoa. «As-paldian Elizak denak batu zi-tuen, solstizioa eta Jesus haurra-ren jaiotza. Baina nik bereizi egin ditut. Opariena nahi nuen nolabait justifikatu, eta horreta-rako denbora zaharra eta berria solstizioarekin harremandu di-tut, ez Jesusen jaiotzarekin», az-pimarratu du. Naturaren zikloa-ren barruan kokatzen ditu Añorgak, finean, Olentzero eta Mari Domingi pertsonaiak.

«Badakit denak ez direla gus-tura geratuko tradizioa ukitu dudalako. Olentzero eta Mari Domingi gaurkotu egin ditudala iruditzen zait ordea, XXI. mende honetan iraun dezaten, norta-sun batekin, argia egiten jarrai-tzeko», dio idazleak. Errelato bat eman eta fundamentua jarri die, beraz, Olentzero eta Mari

Hibrido bat egin dute Mari Domingiren figurarekin: antigoaleko emakume moderno bat sortu dute. Jokin MITXELENA



Domingiren figurei Pello Añor-gak, zentzu bat emanez guztiari.

ANTZINATASUN GAURKOTUA

Lanaren beste zatia Jokin Mitxe-lenarena da, Alemanian bizi den oiartzuarrarena; hitzei irudiak jartzea egokitu zaio. Ez da idaz-leak eta marrazkilariak elkarre-kin lan egin duten lehen aldia izan. «Orain 25 urte-edo hasiko ginen elkarrekin lanean Pello eta biok, eta orduz geroztik 30 liburu inguru egingo genituen elkarrekin», adierazi dio Mitxe-

lenak GAUR8ri telefonoz egini-ko elkarrizketan.

Lanaren garapena, ordea, ant-zekoa izan ohi da beti: «Egiten ditugun obretan normalean be-ra hasten da, testua jarritz. Baina prozesua elkarrekin egiten du-gu; nik bere lana aldatzen dut, eta berak nirea». Azken lana ez da salbuespena izan, eta Añor-gak idatzitako eskuizkribuak izan ditu Mitxelenak marraz-kiak egiten hasteko abiapuntu. «Berak idatzita zeukan testua pasa zidan eta hortik ekin ge-

Tradizioari errelatoa jarri asmo zion Añorgak, zentzua eman. Hala, Olentzero eta Mari Domingiren etorrerak neguko solstizioarekin harremandu ditu, baita afari eta opariak ere

Mari Domingiren figurak eragin dizkie buruhauste gehien, elementu berria izanik erreferentzia gutxi zituztelako. «Izaera autonomoa eman diogu», diote egileek

nion guztiari forma emateari», azaldu du marrazkilariak.

«Esan genezake bi parte ditu-gula, bi pertsonaia –azaldu du–. Batetik Olentzerorena, oso eza-guna dena. Olentzerori zegokio-nez erabaki genuen bertsio ori-ginalari eustea: tipo potolo, arlote, zakar... modura agertzea. Mari Domingiren kasuan, be-rriz, ia goitik behera asmatu ge-nezakeen pertsonaia, bere figu-ra oso modernoa delako». Horregatik erabaki zuten, hein handi batean, asmatu egingo zutela Mari Domingiren figura, eta hibrido bat egitea erabaki dute; antigoaleko emakume moderno bat egin dute. «Jantzi genuen antzinako arropen aipa-menarekin, baina egokitu dugu gaurko garaietara. Adibidez, soi-neko oso luzea zegoen tokian moztu egin dugu, edo ilerik ez zegoen tokian ilea ikus dadila bermatu dugu», azpimarratu du.

Erreferentzia gutxi zituela-eta, Mitxelenaren lehen ideia emakume zahar bat marraztea-ren izan zen, antzinako emaku-me jakintsu baten itxura emanez. Baina ideari buelta pare bat eman eta hobetsi zuten emakume gazteago bat marraz-tea, irakurlearekin hobeto iden-tifikatuko litzatekeelakoan. Era berean, bazuen egun zenbait he-rritan ateratzen duten Mari Do-mingiri begiratzeko aukera ere.

Mitxelenak erreferentzia gu-txi izango zituen Mari Domingi marrazteko orduan, baina berak eginiko figura izan daiteke Mari Domingi kalera ateratzeko as-motan diren herrientzat errefe-rente. «Figura hori norbaitek erabiliko ote duen? Ikusiko du-gu, ez dago gure esku. Asmoa fi-gura praktiko bat egitea zen», azaldu du.

Osatu dute, beraz, Añorga eta Mitxelenak Olentzero eta Mari Domingiren inguruko errelato bat, kutsu erlijiosoa alboratu eta naturarekin harremanetan ja-rriz. Añorgak dio kontakizuna, etxeko txikientzat baino, gu-rasoentzako dagoela pentsatu-ta: «Familian kontatzeko eta partekatze liburu interesga-rria izan daiteke». Eta datozen egunak, a proposak horretarako.



iRRITZIA:



Unai
Iturriaga

1,5€
ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN



DATORREN OSTEGUNEAN
GARAREKIN DOHAINIK

7haizetara



Nostalgia

Joxean Agirre

Orain hiru bat aste, Bilbon, zereginik gabeko goiz batez eta hiri bat eza-gutzeko biderik onena periferiatik ibiltzea dela pentsatuz, Otxarkoagara igo nintzen, Asier Mendizabal artistak MACBAn eta Reina Sofian “Otxarkoaga M-L” lana (auzoan dauden Marxen eta Leninen bustoen gaineko gogoeta) erakutsi zuenetik buelta bat ematekotan bainengoen. Busto horien historia luzea da. Sobietar Errepublikako Sozialisten Batasuna desegin zenean Madrillgo enbaxadak ez zekien zer egin irudiekin eta Parla herriko komunista taldeari eman zizkien bi bustoak, baina Udalak ez zien herrian jartzen utzi eta 1993an iritsi ziren Otxarkoagara. Ordurako auzo elkartek gestioak eginak zituen Bukaresten hango plaza batetik Leninen estatua handi bat ekartzeko ere. Bustoak ezarri zituzten baina ez zuten bakerik izan; gau batez tirokatu egin zituzten eta auzo elkartekoak haien or-

dez Txabi Etxebarrietaren irudi bat jartzera iritsi ziren eta Basta Ya-k auzitara jo zuen. Kontua da Asier Mendizabalek pasadizo horien gainean eraiki zuela monumentuei, iraganari eta presenteari buruzko bere arte egitasmoa. Kostata iritsi nintzen bustoak dauden to-kira, ez baitago Euskal Herri osoan hainbeste harmaila duen auzorik. Egon nintzen hamar bat minutu irudiei begira (uste dut azken urteotako turista bakarra nintzela), gogoetan murgildua eta tarteka nostalgia-ren zimikoak sentitzen nituela, nahiz eta badakidan iraultzaile batek ez duela nostalgia-rik sentitu behar, etorkizunarena izatekotan ere. Horrela nengoela metro batzuetara kiosko bat ikusi nuen eta, egunkaria erosi gabe nenbilenez, gerturatu eta “Egin” bat eskatu nion nahi gabe saltzaileari, lapsus arrunt bat, oso normala burua iraganean nerabilela kontuan izanik. “Egin”-ik ez zuela,

baina “Gara” bat emango zidala esan zidan eta erantsi zuen nola mutikotan hasi zen auzoan “Egin” banatzen. Handik astebetera egin genuen Parisen ikasketak egiten ibili ginenon urteroko bazkaria. Aurtengo gertakariak tarteko, Bataclan izan genuen hizpide, garai hartan (70eko hasieran) Arroako pilotari ohi batena baitzen, *striptease* lokal bat bezalaxe. Atentatuek izan zuten lehentasuna, noski, baina nostalgia ariketa batzuk izan ziren bazkalondoan. Segidan Durangoko Azoka etorri zen eta Iñaki Aldekoaren “68ko belaunaldia” irakurri dut, gure gaztaroko ideia eta gertakariei buruzko *collage* ederra. Hor ere nostalgia-ren zimikoak tarteka badira, 60ko hamarkada bereziki utopiana izan baitzen. Orain Imanol Muruaren bigarren liburua daukat zain eta hor, hala espero dut, ez dudala nostalgia-ren zimikorik sentituko. •

«Segurtasunaren» izenean

Saioa Iraola


Mugetako kontrolak indartzea; segurtasun neurri zorrotzak ezartzea garraio zein leku publikoetan; segurtasun gastuak igotzea; Lille, Paris, Herbehereak, Belgika eta Frantzia lotzen dituzten Thalys abiadura handiko trenetan segurtasun arkuak jartzea; alerta antiterrorista zabaltzea... Horiexek Europako hainbat herrialdek, eta, batez ere, azken hilabeteen, Bataclaneko erasoen ondoren, Frantziak, Europar Batasunaren babespean hartutako neurrietako batzuk. Polizia gehiago kale bazterretan, eta, hori gutxi balitz, bonba gehiago Sirian. “Segurtasunaren” izenean, segurtasun eza, izua hezurmamituz. Jada ez da bake hitzik entzuten diskurtso politiko hegemonikoetan. Bakea, se-

gurtasunagatik ordezkatu dute agintari politikoeak. Bakea ez da soilik zuzeneko indarkeriarik edo gerrarik gabeko egoera. Aldiz, giza eskubideekin, garapenarekin eta ingurumenarekiko errespetuarekin lotutako epe ertain eta luzeko prozesu konplexu gisa ulertzen dut. Egun, oraindik existitzen ez den egitate modura, alegia. Gogora ekarri nahi dut Jule Goikoetxeak berriki idatzitako artikuluan adierazitakoa: bakea ez da existitzen, feminismoa bai. Honenbestez, “segurtasuna” ere birdefinitu behar dugu. Segurtasunaren kontzeptu klasikoa, “segurtasun nazional” deritzona, Estatuan zentratzen da. Herritarrak kontuan hartu gabe eta kanpoko erasoen aurrean defentsa militarrean oinarrituz. Baina segurtasunaren paradigma horrek,

ongi ikusten ari garen moduan, ez ditu ez giza eskubideak bermatzen ez eta errespetatzen ere. Hortaz, edo birdefinitzen dugu edo ez digu balio. Segurtasunaz mintzo dira, hala nola, Hollande, Obama edo baita Raxoi bera ere, aste honetan etxeetara iritsi zaigun hauteskunde aurreko eskutitzean kasu. Baina ez gaitezen segurtasunaren promesa zahar-berriarekin trabatu eta erori. Pertsona guztiok geure oinarritzko beharrak asetzeko ahalmena adierazten duen giza segurtasunaren alde egitea proposatzen dut. Batez ere, zaurgarritasun handiko egoeretan, gerran nahiz baztertuta, bizi diren pertsonen ongizatea bermatuz. Bakea nahi dugunok, gerrarako presta ez gaitezen. •

infraganti MARKOS URDANGARIN

Topografoa izatez, hogeita bi urte luzez aritu zen eraikuntzan lanean Markos Urdangarin segurarra. Baina krisiak aurretik eraman zituen gauza asko, tartean bere lanpostua. 54 urte zituela, goiz bateko paseotxoan eman zioten ideia: barraskilo granja bat. Eskuz egindako lanaren lehen fruituak jasotzen dabil lehen uztaren salmentarekin.



Markos Urdangarin, eskuetan lozorroan dauden ehunka barraskilo dituela. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Gabonekin batera bueltatzen dira gure sukaldeetara errezeta jakin batzuk. Aurrerik egingo dute leku gure otorduetan, hemen baitira lagun eta familiarteko mahai inguruak. Eta batek baino gehiagok memorian izango ditu amonak prestatutako barraskiloak, ondoren ogiz ondo bustitzen den tomate saltsa horrekin... Eta Gabonak eta barraskiloak hizpide, Markos Urdangarin segurarrarekin elkartu gara, ogibide bitxi baten berri emateaz gain, imajinazioarekin langabeziatik atera daitekeela azaldu baitigu.

Izatez topografoa da eta horretan aritu zen hogeita bi urte

luzez, baina krisiarekin batera eraikuntzaren burbuila lehertu zen une berean galdu zuen lanpostua. Eskarmentua bai, handia, baina zer egin 54 urterekin? Gazteekin batera berrogei urteko gorakoek sufritu baitute langabeziaren kolperik handiena.

2012. urtea zen. Eguneroko errutina, bulegokoa, paseotxoengatik aldatu zuen. Une horiek aprobetxatzen zituen buruari bueltak emateko. Txangoak bizilagun duen errioxar batekin ematen zituen; garai hartan bajaran zegoen eta denbora librea zuen. Kontu hori ez da hutsala, ordea. «Errioxan zelaia dituzte bizilagunak eta hala esaten nion: 'Jose Luis, zuk eta biok Tolosako babarruna ekoiztiko dugu Errioxan'. Eta berak ezetz: 'Ahaztu ba-

barrunak, zuk karakolak saldu behar dituzu'. Nik ideiarik ez nuen mundu hori existitzen zenik ere!», dio.

Hura izan zen barraskiloak ekoizteko aukera bazegoela entzun zuen aurreneko aldia. Informatu egin zen, sarean kontsultak egin eta jauzia egitea erabaki zuen. Lantzen duen lurzorua senide batek utzi zion; onartzen du erosi behar izanez gero, ezinezkoa litzatekeela. Ondoren, azpiegituraren muntaketan beste senide eta anai-arrebek ere asko lagundu diotela aitortu du, baita eskertu ere.

Informazioa eskuratuta, Zaragozara joan zen ikastaro berezi bat egitera. Dokumentazio guztia bilduta, han ikusi zuena Seguran jarri zuen martxan. Baina ez zuen funtzionatu. «Karakol guztiak ere erosi nituen, baina, antza, hango sistemak hemen ez zuen balio: barraskiloen %80k ihes egin zuten eta gainerak %20a hil egin ziren. Goitik behera hasi behar izan nuen berriro, eta ohartu nintzen gauzak ez zirela Interneten esaten zen bezain errazak. Errealitatea beste kontu bat da», gogoratu du.

Ez zuen etsi, eta beste ikastaro bat jasotzera joan zen Salamanca, Aragoiko al baitari batek hala aholkatuta. Bertako ekoizpena ezagutu eta beste mota bateko karakol kumeak erosi zituen, arrautzatik atera eta berehala osatzen direnak. Sistema, berriz, Gasteizko barraskilo granja batean oinarrituta garatu zuen. Koordinatuta daude, Bizkaiko beste ekoizle batekin batera, genetika eta elikadurari dagokionez, eta, hortaz, lortzen duten produktua berbera da.

Urtebete da karakol granja martxan jarri zuela eta oraintxe lehen uzta saltzen ari da, poto handi eta ertainetan; bereziki jatetxe eta tabernetan saltzen du, karakolak euren menuetan sartzen ari dira-eta. Batik bat sukaldaritza tradizionala eskaintzen dutenek eskatzen dituzte karakolak, nolabait garai bateko sukaldaritzara, gure amonenera, bueltatzeko. Zonaldeei dagokionez, Durangaldea, Irun, Hondarribia eta Eibar aipatu ditu

kontsumo eremu gisa, nahiz eta orain, Eguberrietan, bereziki abenduaren 24ko Gabon gauean, etxe askotan jango direla jakin. «Gure etxean adibidez, hiru belaunaldik dugu egun horretan karakolak jateko ohitura: nire emaztearen gurasoek, geuk eta geure seme-alabek, baina, preparatzen, karakolak behar bezala maneiatzen, aurreneko belaunaldiak baino ez daki...», azaldu du. Horregatik, poteetan ondo garbituta eta prestatzeko gertu eskaintzen ditu berak, jendea lana kenduz. Pixkanaka-pixkanaka lortzen ari denarekin pozik dagoela dio, zerbait hutsetik abiatu eta emaitza eman duela ikusteak asebetetzen duelako Urdangarin. «Bidea hartuta dago, baina orain bidea perfektionatu behar da».

ESKUZ EGINDAKO LANA

Ekoizpenerako lur saila Seguran dauka, Zegamarako bidean. Parekorik ez duen paraje horretan aritzen da lanordu luzez, norbera bere enpresa den guztietan gertatu ohi den bezala. Barraskiloen mundu ezezagunaz datu batzuk azaldu dizkigu, adibidez, ekoizpen garaia maiatza eta urria bitartean izaten dela eta hortik kanpo animalia txiki hauek lozorroan izaten direla. Bai, horixe bera, lozorroan.

Lantegia duen etxolako gela batean ditu Urdangarin. Apatategi handi batean sare moduko zakuetan banatuta, ehunka eta ehunka barraskilo, tamaina ertain-txikia dute eta lozorroan daude; hezetasunik sentitzen ez dutenez eta ura behar dutenez, euren sistemak berak horretaz ohartarazi eta kanpoaldetik isolatzen dituen pantailatxo edo telatxoak eraten dute. Berriro inguruan ura dagoela sentituz gero, esnatu egingo lirateke, «bizitza arruntarekin» jarraitzeko.

Salmentarako karakolak jasotzeko garaia heldu zenean hauek tamaina nahikoa ez zutenez, gorde egin zituen Markosek, maiatzean berriro esnatu eta elikatzen jarraitzeko. «Karakolak ez du ikusten eta ez du entzuten, baina sentikortasun handia du. Dena ura da. Horregatik, sumatzen badu klimak

edo inguruak beharrezkoa duen ur hori xurgatuko diola, eta, horrenbestez, ihartu egingo duela, gorde egiten da», azaldu du.

Potoak Lekeitioko enpresa batek prestatzen dizkio bere barraskiloekin. Horretan ibiliko da datozen hilabeteetan, martxoan ekoizpena martxan jartzeko garaia heldu arte. Negutegi baten antza du barraskiloak hezteko lekuak. Udaberriarekin batera lur eremuko belarra prestatu, beharrezko oholak jarri [aldameneko beheko irudia ikusi] eta ur jariora ahalbidetuko duen hoditeria atonduko ditu. «Lehen esandakoagatik, ura eskaini behar zaie barraskiloek, hezetasuna eman. Gustura daudenean gosetu egiten dira eta jatera ateratzen dira. Horrela loditzen ditugu, pentsu bereziarekin eta belarrekin. Gizentzea aurreratzan dugu, prozesu edo zikloak bizkortzen ditugu, alegia».

Oholtzaren inguruan ur jariora egoten da. Hezetasuna sentitzean atera egiten dira barraskiloak eta prest duten janaz gozatzen dute. Temperatura aproposa, udaran, 18.00ak inguruan, su matzen dute. Uztaila, berri, esaldura garaia da; hortik aterako ditu hurrengo uztarako arrautzak, hain justu.

Ogibide berezia bezain gogorra dela berea dio Urdangarinek, guztia eskuz egiten delako, eta enpresa bat hutsetik hasteak buruhausteak ematen dituelako, nola ez. Bilketa sasoia ere ez da makala. Barraskilo guztiak, milaka eta milaka, banan-banan ukitu behar dira, oskolaren gogortasuna ukitu eta erabaki: pototan sartzeko baztertu edo loditzen utzi. Eta hurrengo egunean berriro, eta hurrengoan... bilketa garaia amaitu arte.

Ekoizpenerako baztertu eta saltzera bideratutako karakolak garbiketa prozesura pasatzen dira jarraian, bost egun irauten dituen prozesu batera. Urarekin baino ez, alegia produkturik gabe, behin eta berriro garbitu, muki guztia bota arte. Hori guztia ere eskuz. Amaitean, barraskiloak saretan gorde eta Lekeitioko enpresara eramaten ditu.

Urtebeteko ibilbidearen ondoren berehalako erronkak identi-



Markos Urdangarinen karakol granjak negutegi baten antza du kanpotik, nahiz eta barruko sistema erabat ezberdina izan. Jon URBE | ARGAZKI PRESS



Ura sentitzean, janaren bila ateratzen dira barraskiloak ohol azpitik. GAUR8

Saltzeko sasoian tamaina ez duten karakolak jaso egiten dira eta lozorroan sartzen dira urrik ez dutelako. Maiatzean negutegian jarriko ditu berriro. Hezetasunarekin «esnatuko» dira

Garai bateko sukaldaritzara bueltatu nahi duten jatetxeek erosten dituzte barraskiloak. Durangaldea, Eibar, Irun eta Hondarribia aipatu ditu zaletasun gune nagusi bezala

fikatu ditu, adibidez, klima edo tenperaturarena. Salamancatik etxeratu duen eredu 22 eta 19 gradu artean hezten dituzte karakolak, eta horixe du helburu, ahalik eta heriotza tasarik txikiena izateko. Hala, galerak ere txikituko baitira.

Beste erronka, merkatuan dagoen lehiakortasunari aurre egitea da, bereziki inportazioengatik. Eskaintzen dituen datuen arabera, Estatu espainolean ekoizten dena kontsumitzen denaren %20 baino ez da, gainontzekoa atzeritik ekartzen da. Eta horri, jendeak bere kabuz jasotzen dituenak erantsi behar zaizkio. «Basatiak bildu eta saldu egiten dituzte hainbatek,

inongo kontrolik gabe; ez daki-gu non bildutakoak diren, produktu kimikoak dituzten, kutsatuta dauden... Osasunarekin jolastea da hori», salatu du.

Gabonotan hainbat etxe eta jatetxetan bere karakolak jango diren ideiarekin pozik, mundu hau «berezia, tentuz ibili beharrekoa» dela ohartarazi du Urdangarinek, bereziki krisi garaiotan askok «panazea» balitz bezala saltzen dutelako negozioa. Atzean, ordea, segurarrak jakin badaki lana dagoela, handia, baina ilusioa ere bai, eta uneotan horrek mugitzen du enpresa txiki eta bitxi hau.

Oihane Larretxea de la Granja



Ander Izagirre - @anderiza
Kazetaria

Basajaun, oiloei jaten ematen

Bernardo Antxorena elizara sartu da eta ogi puskak hara eta hona bota ditu. Dozena bat oilo korrika etorri dira berehala ogiak mokokatzen: –Honezkero ni bakarrik sar-

tzen naiz, animaliei jaten ematera.

Tenplua ez da tenplu: sakratutasuna kendu zioten aspaldi, orain oilategia da. Herria ez da herri: monumentua da, baikor izatekotan; edo itzaletan galdutako aztarna, abenduko goiz hotz eta euritsu batean bagatoz.

Bernardo Antxorena noizean behin etortzen da. Hirurogeita hamar urte pasatxo dauzka, ile zuria, aurpegi gorrixka, keinu leunak. Antxorena izeneko etxean jaio zen, Iratiko oihanean, aizkolariak, ikazkinak eta mandazainak hartzen zituen ostatuan. Ogia, gazta eta arrautza frijituak jaten zituzten, ardoa edaten zuten, lastategian egiten zuten lo. Bernardoren anaiek zuhaitzak bota, almadiak eraiki eta ibaian behera garraiatzen zituzten Zaragozaraino.

Sei urterekin Orbaitzetako Fabrikako kolonia honetara bidali zuten Bernardo, aita-ama pontekoen etxera, hemen eskola txiki bat zegoelako. Gero Burlatan ibili zen lanean 29 urtez, eta han bizi da, baina erretiratu zenetik bolada luzeak ematen ditu Aezkoako zoko hauetan.

–Hirian ez naiz sekula moldatu. Basora bueltatzeko beharra izaten dut.

Etxe bat dauka auzo abandonatu honetan, eliza, palazio, kuartel, langileen etxebizitza, ikaztegi, aroztegi eta galdategiko labeen ondoan. Burdinazko Munizioen Errege Fabrikaren arrastoak dira, herri fantasma, basoa kolonizatzeke giza saia-kera bat.

Antxorena etxea sute batek irentsi zuen. Pagadian barneratu naiz, eta mapak adierazten duen lekuan ez dut arrastorik topatu. Antxorena etxea oraindik existitzen da, ostalariarekin, arrautza frijitutan ogia bustitzen duten ikazkinekin, lastotan lo egiten duten aizkolariarekin. Kontakizunean existitzen da, Basajaun erraldoi iletsua bezala.

–Hemen bildu gaituzunez, hemen gauda. Baina jakin behar duzu ezkutuan bizi garela, erbesteraturik, kanpaiei, otoitzei, ur bedeinkatuari eta isipuei ihes eginez. Ez dugu gordetzeko lekurik, latinak no-

nahi jarraitzen gaitu bere *sæcula sæculorum*-arekin.

Halaxe hitz egiten du euskal izpirituen kokuak, Pio Barojaren lumapean. Aurre-rago, zuhaitzen artean beste norbait azaltzen da.

–Eta zu nor zara, begi distiratsu eta gorridun munstro hori?

–Basajaun beldurgarria naiz.

–Lotsati samarra zara, hain beldurgarria izateko.

–Kolokan nagoelako. Batzuetan iruditzen zait erraldoi bat naizela, buru handikoa, beso indartsuduna, mendi baten tamainako gorputzekoa; bestetan fantasia besterik ez naizela pentsatzen dut. Ez naute euskal izpirituen bileretan onartzen. Barre egiten didate, ezin diedalako nortasun agiritik erakutsi.

Basajaun, Gaueko, lamiak: izpiritu hauetan antzinako beldurrak mamitu ziren, lehendabiziko biztanleen kezak. Lehenengo gaztak eta lehenengo istorioak sortu zituzten artzain haiek sinesten ez ditugun kontuak eta irakurtzen ez dakizkigun seinaleak utzi zizkiguten. Orbaitzetatik gora, Azpegiko lepoan, zazpi harrespil daude. Hemen erraza da duela hiru mila urteko artzainak irudikatzea, harrizko kamera batean hilotz bat lurperatzen, ardien balakak eta haizearen uluak entzu-

ten zituzten bitartean. Hemen, nik, orain, duela hiru mila urteko haizea eta –esan dezadan– duela hiru mila urteko balakak entzun ditzaket. Artzainen txabolak ikus ditzaket, harrespilak eraiki zituzten artzainenak –esan dezadan–. Giza jarraitasuna ikusten dut, harriari, haizeari eta etxekotutako animaliei lotuta.

Azpegitik gora, Urkuluko dorre erromatarraren arrastoak daude. Harrizko horma zirkularra, hoge metroko diametrokoa eta hiru metroko garaierakoa, barruan aldare bat zeukana. Mendiko kareharri arrailduen gainean kareharrizko bloke leun eta geometrikoak pilatu zituzten erromatarrek, dorre bat eraiki eta paisaiatzeko. Hemendik sartu zen mundu mediterraneoa, hemendik sartu ziren olio, ardoa eta gari-ogia, galtzadak, hiriak eraikitzeke ideaia, latina eta fede kristaua.

Alegia: kanpaiak, otoitzak, ur bedeinkatua, isipiak.

Harrespiletara jaitsi naiz berriz, artzainen txaboletara, basoetara, Orbaitzetako etxe abandonatueta. Ez dut Antxorena ikusi, basora itzultzeke beharra duen gizona, kristautasuna galdutako tenplu batean oiloak elikatzen dituen, eta begi distiratsu eta gorritik ez daukana, Barojaren nobelak horixe direlako: nobelak. •




Artzainen txabolak ikus ditzaket, harrespilak eraiki zituzten artzainenak.

GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



AUBERT. BAIONAKO MERKATARITZA GANBERA

ARMADA LANGILE ESKIROLAK BABESTEN

Baionako garaiko komunikabideetan jasoa geratu denez, 1911 hasieran portuko zamaketariek greba abiatu zuten. Zamaketariek piketeak osatu zituzten portuan mugimendurik egon ez zedin eta manifestazioa ere egin zuten Baionako kaleetan barna lan baldintzen hobekuntza eskatzeko; hamar orduko lanegunak eta atsedena igande eta jaiegunetan, besteren artean. Istilu gogorrak gertatu ziren manifestarien eta Poliziaren artean, eta atxilotu ugari izan ziren. Goiko irudia 1911ko apirilaren 7an Baionako Aubert argazkilariak egindakoa da. Ikus daitekeenez, Worms etxearentzat lan egiten zuen langile eskirol talde bat "Fronsac" itsasontzia deskargatzen ari da, Armada frantsesaren tropek babestuta. Greba zela-eta bidali zuten Armada Baionara.

AURTEN ALTXOR BAT OPARITU

Ehunka preso eta
erbesteraturen testigantzak eta
dozenaka artisten lanak

**Gure aroko
memoria bizia**

**Belaunaldi berriekin
partekatzeko kutxa
hunkigarria**


NOLA ESKURATU?

www.ametsenliburua.info-n
edo **944 237 273** telefonoan
eta etxera bidaliko dizugu

55€
kutxarekin

75€ Liburudendetan

50€
kutxa gabe



Olentzerotako opari bikaina

